**TELEFONO GIDA 2011**  
Eskualdeko harpidedunek  
jasoko dute ale honekin**ARANZA → 11**  
Arantza Rock  
abuztuaren 20an**ZUBIETA → 23**  
Omenaldia duela 40  
urteko joaldunei**ZUGARRAMURDI → 28**  
800 lagun espero dituzte  
zikiro jate egunean**GOIZUETA → 35**  
Festetan, Emakumeen  
Eguna lehen aldiz

Gorosti Elkartek 25 urte daramazki natur zientziak lantzen Nafarroan. Elkarrekin honendako begirale lanak egiten ditu Jon Martinez lesakarrak. Zerura begiratu eta sasoi bakoitzean pasatzen diren hegaztiak behatu, datuak hartu, aztertu eta elkartearen webgunean partekatzen du informazioa, horixe baita bere denborapasarik gogokoena. Inguru honetako harrapakari eta korbidoen zentsoa ere egin du. Lesakarrak dioenez, «hasieran txori guztiak berdinak iruditzen zaizkizu, baina pixkanaka ikasten joaten zara». Argazkian *Martin arrantzalea* izeneko hegazti dotorea.

ERREPORTAJEA → 3-5

Jon MARTINEZ | Gorosti Natur Zientzia Elkarteko begirale lesakarra

## «Hegaztiak aztertzekeo inguru zoragarrian bizi gara»



**AROZ - BERRI**

**BILBOTA**  
Tel 946 081021  
Fax 946 412102

**OÑCIA**  
Tel 946 336117  
Fax 946 389524

**ONGI PASA FERIAKI!**

# TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertzeko  
**DOKUMENTU-POLTSA**  
bat izanen duzu opari

**can**  
proiektu  
zenbakia  
**15.996**



Boligrafo, identifikazio txartela eta mugikorrerako konpartimentuak

**ttiipi-ttapa**

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagarria Nafarroako Kutsarri zure bulegoan  
eta ekar ezazu TTIPI-TTAPARA abenduaren 30a baino lehen.



NATURA → JON MARTINEZEKIN SOLASEAN

# «Hegaztiak aztertze inguru zoragarrian bizi gara»

Gorosti Zientzia elkartearentzat  
begirale lanak egiten ditu  
naturzale lesakarrak

Garai batean, txori eta hegaztien harat-honaten bidez jakiten zuen jendeak hurrengo eguneko eguraldia, negua aitzindu edo gibeleratuko zen. Gaur egun, telebista edo Internet bidez, eguraldiaren berri izan dezakegu eta telebista eta ordenagailuari so, inor guttik begiratzen du zerura, hegaztiak ikusteko. Ehiza garaia ez bada, behinik behin. Jon Martinez lesakarrarentzat ordea, hori da bere denborapasarik gogokoena. Gorosti Natur Zientzia Elkarteko begiralea da eta Hegazti harrapari eta korbidoen zentsoa egin berri du.

**Aitor AROTZENA** | LESAKA

Gorosti elkarteak 25 urte daramazki naturazientziak lantzen Nafarroan, baina duela bizpahiru urte arte ez zuten hartueman errazten zuen webguterik. «Orain webgune aski interesgarria daukate, Nafarroako bioaniztasun guztia ezagutzeko hagitz baliagarria, hasi animalietatik, landaredia, espeleologia... gai horietako bakoitzarentzat foro bat ere badaukazu, albisteak eta horretaz gain, gida bisual bat ere bada, informazio guztia sartzen dena, xehetasun guztiekin: argazkia, zer espezie den, non aterea den argazkia... Nik hegazti-

en eta intsektuen argazkiak bidaltzen ditut». Hala aipatu digu Jon Martinez lesakarrak.

Hegaztien kasuan, argazkiez gain, garrantzitsua izaten dira abisamenduak, «Afrikatik honat datozen hegaztien komentarioa sartzea foroan, "halako espeziea, halako egunetan ailegatu da eta halako lekuan ikusi da" eta argazki batekin lagundua bada, hainbat eta hobea. Datu horiek guztiak hor daude, lertxunarekin segimendu berezia egin da, Nafarroa osoan».

Estatu mailan iaz egin zen hegazti harrapari eta korbidoen zentsoa egiten ere parte hartu zu-



ARGAZKIA: JON MARTINEZ

Arruntak diren espeziei ere (argazkian txio arrunta) irudi ikusgarriak egiten ahal zaizkie.

en Martinezek: «Nik 10x10 kilometro koa droko bi kuadrak hartu nituen, Bortziriak inguruan eta Sunbillara bitarte, Etxalarukitugabe. Trasento delakoa-ren bidez egiten da azterketa, hau da, mapa batean ibilbide bat marraztu behar duzu, zortzi zatitan banatutakoa, bigarren mailako

## ESALDIA

«Lehen naturaren bidez gidatzen ginen gehiago, baina orain Internet, telebista... hainbertze informazio daukagu!»

**Jon MARTINEZ**  
Gorosti Elkarteko begiralea

errepide eta pistetan barna. Laguntzaile bat izan behar duzu eta bi badira hobe. Batek gidatu egiten du autoa, bertzeak behatu eta bertzeak apuntatu. Gehienez ere orduko 40 kilometrotan joan behar duzu, zure prismatikoe-kin, arrano bat ikusten duzula, fitxa batean apuntatu behar dituzu datuak: espeziea, lekua, ordua, mapako kokapena... bele bat ikusten duzula, berdin. Gauza bat da eskualdean egitan dagoena, eta bertze bat ikus dezakezuna, hagitz ezberdina da. Egun batean mendira joan eta ez duzu deus ikusten eta bertze batean, hegazti pila bat.

Edo goiz batean hagitz ongi eta arratsaldean zero patatero».

## «INGURU ABERATSA»

Langabezian dagoela aprobetxatuz, eguneko bizpahiru ordu ematen ditu hegaztien behaketan, «eta eguraldi txarra egiten badu, bizi garen inguruan bizi garenaz, lorategira atera eta intsektuak begiratzeko ditut. Intsektuei ateratako argazki gehienak etxe inguruan ateriak dira. Ez dago Afrikara joan beharrik, jendea harritua gelditzen ahal da hemen ditugun intsektuekin eta argazki-kamera baten makroarekin ateratzen ahal diren irudi ikusgarrieekin. Es-

ker oneko argazkiak dira, atera ondotik forora pasatzen ditut, han identifikatzen dute espeziea eta gida bisualera pasatzen dut. Mundu interesgarria da intsektuena ere, eta aunitz ikasi dut, lehen ez nuen ideiarik ere eta ora in ikasten ari naiz, izen zientifikoak eta, hegaztienak arraroak badira, imajinatu intsektuenak!».

Hegaztiei dagokiez, Afrikatik datozenen artean, gure inguruan miru beltza, arrano sugezalea, belatza, zapelatz liztorjalea ikus daitezke... «Horiek denak Afrikatik datoz inguru honetara, —erran digu Martinezek— barietate handia dago. Zapelatza eta miru gorria sedentarioak dira, urte osoa ematen dute hemen. Belatz gorria, aldiz, aunitz jausti da, ez dakit zergatik. Sai zuria etortzen da eta Aia-ko Harrian erruten du, baita belatz handiak ere, Kopako Harriaren inguruan. Gabiraia ere hemengo da. Ugatza ere ikusia dut Frain inguruan eta Gorramedi inguruan. Europako hegazti-



rik ttikiena ere, *erregetxo bekainzuria* Nafarroan bizi da urte oso-

an, 8 gramo pisatzen du». Garai batean estuagoa

baldin bazen ere, jendeak naturarekin duen zuzeneko harrema-

JON MARTINEZ, GOROSTI ZIENTZIA ELKARTEKO BEGIRALEA

## «Hasieran txori guziak berdinak iruditzen zaizkizu, baina pixkanaka ikasten duzu»

### Zein da garairik onena hegaztien behaketarako?

Urte sasoiak baino gehiago, espezie bakoitzaren eztei aitzineko eta eztei ondoko garaiak dira ikusteko egokiak, espezie batzuk udaberri hasieran ateratzen dituzte bere kumaldiak eta berte batzuk ekainean oraindik bikotearen bila ari dira, kantuz eta kantuz. Baina gure ingurua, hegaztiak aztertzeko zoragarria da. Errate baterako, Irun-Hondarribia-ko Txingudiko eremu hori ezin aberatsagoa da hegaztiak ikusteko, neguan batez ere. Trenbidearen eta errepidearen artean sartua dago eta

ezagutzen ez duenarentzat, sines-tezina dirudi, baina espezie kopuru izugarria dago, ahate-mota pila bat, interpretazio zentrua ere hor dago... Gero, hor dugu Bertiz, pasako hegaztiak ikusteko mendiak...


### Denborapasa interesgarria iruditzen zaizu hegaztien behaketa?

Hagitz gomendagarria. Bere ikerketa punttua ere badu, hasi nahi duen jendearentzat interesgarria da gida-liburu irakurteraz bat lortzea, hemengo hegaztiak biltzen dituen, ez da beharrezko Munduko txoririk arraroenak izatea. Hasieran, txori guziak berdinak iruditzen zaiz-

kigu, baina poliki-poliki ikasten joaten zara, ezberdintasunak somatzen, ikasten, jakinmina pizten joaten zaizu, eta gero, gida hori ongi kontrolatua duzula iruditzen zaizu, zerbait gehiago behar duzula eta azkenean Svensson gidara ailegatu-ko zara, profesionalena. Mendian bizpahiru ordu ematen dituzu, pasiatuz eta aldi berean ikusiz eta ikasiz, emozionantea eta polita da.







liota handia

#### 420 KANTU, 10 CDtan

«Zenbait espezie ikustea hagitz zaila da eta kantuen bidez identifikatzen dituzu. 10 CD ditut, Europa osoko 420 txoriren kantuekin eta horren bidez ere jakiten dugu zer espezie dauden basoan, baina zaila da, aunitz findu behar duzu belarria eta ordu aunitz sartu».

#### ERAZTUN ZIENTIFIKOA


«Titulua lortzeko 1.500 txoriri jarri behar diezu identifikazio-eraztuna, 60 espezie baino gehiagori, bertze zenbait gauza eta Aranzadik egiten dizun azterketa sakon bat gainditu. Nik hasierako ikastaroa egin dut. Denbora aunitz behar da. Nahi nuke ateri, baina lan gogorra da, dedikazio handia eskatzen du».

na ez dela erabat galdu uste du Jon Martinezek, «baina hau, animaliak eta natura behatzea, mendira joatea, adin batetik aitzinera izaten da. Piriniotan 22 urteko jende gutti ikusten duzu, eta hegaztiak behatzen ere bai. Niri aunitz gus-tatzen zait mendira joa-tea eta hegaztiak ikus-tea. Beharbada base-rriko jendeak lehen ba-zuen ohitura hori, begi-ratzeko, kukua aditzen zuten lehenbizikoak ba-serritarrak ziren... men-dian bizi dira eta adi-tzeko errexagoa dute. Lehen naturaren bidez gidatzen ginen gehiago, baina orain hainbertze-ko informazioa dauka-gu! Telebista dela, Inter-net dela, beharbada na-turarekiko harreman ho-

ri zerbait galdu da, ber-tze hainbat gauza be-zala». Baina hegaztien harat-honata denbora neurtzeko sistema ego-kia dela aipatu digu. «2006tik apuntatzen dut arrano txikia noiz aile-gatzen den gure inguru-ra eta 3-4 eguneko go-rabehera bertzerik ez dute izaten urte batetik bertzera, ez dute hutsik egiten».

Internetek ere bere alde ona dauka: «Nik 2006tik honat, inguru honetan agertzen ziren harrapariak apuntatzen nituen libreta batean, baina neretzako nituen... Orain, apunte ho-riek bertze pertsonekin konpartitzen ahal ditut bertzeak jartzen dutena ikusi, ikastaroak daude, izugarri ikasten da».

#### NATURAREN IKUSKIZUN HARRIGARRIA



ARGAZKIA: JON MARTINEZ

Bianditz mendiaren magalean milaka eta milaka *negu-txonta* hegatzten.

## Miloi eta erdi *negu-txonta txorik* Artikutzan eman dute negua

A. AROTZENA | LESAKA

Negu honetan txori multzo ika-ragarri handiak ikusi dira harat-ho-natean Bortzirietan, Bertizaranan, Baztanen... Milaka eta milaka txo-ri hegaka, goizez Artikutza aldetik Bertizera eta arratsean berriz ere Artikutza aldera bueltan.

Inguruko herrietan jendeak ha-rriduraz begiratu du zerura, seku-lan halakorik ez zuela ikusiz erra-nez horietako aunitz. Esplikazio gar-birik ez zioten bilatzen fenomeno honi, baina nolabaiteko azalpena eman digu Jon Martinez lesakarrak.

«Gure inguruan harat eta honat ikusi ditugun txori horiek *negu-txon-tak* dira –aipatu digu lesakarrak–, pinzón real gaztelaraz, *Fringilla mon-tifringilla* latineko izen zientifikoaz, eta Artikutza aldean hartu dute lo-tarako lekua negu honetan». Nor-malean Europa erdialdean, Frantzia edo Herbehere aldean ematen du-te negua, baita iberiar penintsula-ko iparraldean ere, baina inoiz ez zen halako kopururik ikusi ez gure eskualdean, ezta Euskal Herria oso-an ere. «Normalean 200-300 elkar-tzen dira, baina aurtengoa harriga-rria izan da». Badirudi gure inguru-an jateko ugari topatu dutela negu

honetan, iaz pagoek bagatxa aunitz eman baitzuten eta hori aunitz gus-tatzen zaie. «Miloi eta erdi inguru txori direla kalkulatu da, baina zail da kopurua zehaztea» aipatu digu lesakarrak, baita negua pasatzera gure ingurura etortzen den hegazti bakanetakoa dela ere.

Urtarril hondarrean Bizkaiako Ba-razar inguruan ere izugarriko *ne-gu-txonta* multzoa ikusi zen, «eta Artikutzara, Bianditzen magalera o-tsail hasieran heldu zena multzo ho-ri bera zela uste da, ez baita nor-mala miloi terdi buruko bi multzo izatea». Jon Martinez, Itsas Enara elkarteko Hector Gonzalezekin jo-an zen Artikutzara txoriak ikustera eta aztertzeraz otsailaren 20an, eta ikuskizuna zoragarria zela aipatu di-gu. «Hantxe zebiltzan Bianditzen magalean, lehenik pagoetan geldit-zen ziren eta gero pinu beltzetara pasatzen ziren, bertan lo egiteko. Egunez mugitzen ziren, jatekoaren bila eta berriz ere arratsean lotara-ko biltzen ziren Artikutzara».

Udaberriarekin batera, Artiku-tzatik desagertu da txonta eta se-guruenik, udaberria eta uda pasa-tzera, Finlandia edo Polonia aldeko mendietara jo izanen du.

**Nire txanda**

Joseba URROTZ

## Aldatzen ez diren gauzak

**Z**iztu bizian doa denbora. Hamaika aldiz aipatu izan dugu gauzak azkar aldatzen direla, eta urteen iragan biziak susmo hori haunditzen du. Ia desagertu dira 13x13ko azulejo xuriak, *seiscientosa* edo gasolineratan saltzen ziren *Duo Galaren* kasetak. Zorabio hortan murgildurik, aldatzen ez den zerbait bilatu nuen, eta goiz batean zorionez, aurkitu ere. Hortxe zegoen, gotsaltzen ari nintzela, parretan zintzilik: Egutegia! Arraiua! Denboraren iragana zorrozki adierazten duen huraxe bera da aldatzen ez dena! Bai, urteak joan eta etorri, formato eta argazki bera dute: Jesusen Bihotza, ama Birjina, katu eta zakurkumeak edo Noruegako paisaiaren bat! Pilotarien argazkiak zituen *Copeleche* aterako egutegi haiek modernoegiak ziren, hobe harategi eta dendatan ematen dituzten betikoak! Zorionez, bada aldatzen ez den gauzarik...

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Mendia ala hondartza?

**G**aldera topiko inoxente horren giblean arrisku handia dago. Milaka lagunek egin duten Añiamendi igotzen lainopean galdu eta hil da berriki bikote bizkaitarra. Uztailaren erdirako 18 omen ziren estatuko igerileku edo hondartzetan itota hildakoak uda honetan. Errepidean galdutako biziak kontatu gabe. Beraz, batera edo bertzera zoaztela, kontuz. Irailean gurekin nahi zaituztegu!

### Nabarmentzekoak

**Pello APEZETXEA**  
Etzalarren omendua

Altxata elkartearen 20. urteurrenaren ospakizunetan omenaldi berezia eskaini zitzaion uztailaren hondar egunean herriko erretoreari, hainbat arlotan egin-dako lana eskertuz.

**Xanta SOUZA**  
Euskal Herriko txapeldun

Nafarrokoa lortu ondorekin, Euskadiko txingamendak txapelketa ere lehen aldiz irabazi zuen kirolari lesakarrak uztailaren 17an Iturenen. Kasik 34 plaza egin behar izan zituen.

**Xabier TELLETXEA**  
Igantzin omendua

Istripuan hildako txirrindulariaren izena eman dio Igantziko Biltokik mendi bizikleta jautsierari. Uztailaren 23an egin zen proba eta omenaldia ere eskaini zitzaion Xabiri Frainen.

Atzera begira → 1991.08.01 / TTIPI-TTAPA 67. zbk



### Goizueta eta Lesaka Herriarte txapelketaren finalean

Duela 20 urte aurrez-aurre izan ziren Goizueta eta Lesaka Nafarroako Herriarte txapelketaren finalean Labriten, ekainaren 20an. Espero bezala, baina partida irabazi zitzuten, baina tanteoa goizuetarren alde izan zen. Honela, bosgarren txapela lortu zuen Goizuetak (1992an lortu zuen seigarrena eta azkena). Goizuetarekin Olaizola anaiak (Aimar alebiretan eta Asier jubeniretan), Munduko txapeldun izanen zen Lujanbio... aritu ziren. Lesakarekin, beriz, profesionaletan aritu diren Taberna, Almandoz...



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduizetza, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Itxaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Mitxel, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia...

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemane Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etzalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea

### 2011ko harpidetza sariak

|                    |          |                       |           |                                |          |
|--------------------|----------|-----------------------|-----------|--------------------------------|----------|
| Hego Euskal Herria | .....37€ | Europa                | .....55€  | Baztan, Urdazubi eta Malerreka | .....31€ |
| Ipar Euskal Herria | .....55€ | Amerika eta Australia | .....123€ | Leitza                         | .....15€ |



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Galtzen jakitea

Luis GARDE

**O**rain arte, hautagaitza bat galtzen zutenean, jende eta kamaren aitzinean negar egitera mugatzen ziren. Nor? Politikari eta intelektual espainiarrak, baita saltsa guztietan sartzen diren famosete anitzak. Gero ohiko kontsolamenduzko esaldiak zetozen: *Lan bikaina egin dugu, Suerte txarra izan da...* Bukatzeko: *Hurrengorako hautagaitza berri bat aurkeztu behar dugu; orduan bai, aterako da. Bihartik hasiko gara lanean proiektu berrian.* Eta izugarritzko inbertsioak ilusioaren aitzakian. Eta ilusoen diruarekin ere bai. Zeren eta edozein dela lehiaketaren izaera (Olinpiadak, futbol txapelketa mundiala, Europako hiriburu kulturala eta abar) espainiarrak beti faboritoen artean daude. Bertzeak beti dardarka espainiarren indarraren eta dinamismoaren aitzinean. Inperioa beti Inperio.

Oraingoan, ordea, ez da horrela izan. Donostia hiria 2016ko Europako Hiriburu Kulturala izateko lehiaketan nagusitu denean negar gutxi ikusi izan dugu, amorruskoa ez bada. Eta pozoi gehiegi. Hautagaitza aurkeztu zuten bertze hiriburuekin lotutako zenbait politikari ilustre busti egin dira Donostiaren arrakasta honen kontra: Rosa Aguilar, Kordobako alkate ohia eta egungo Ingurugiro ministroa; Belloch, Zaragozako alkate ohia eta Justizia eta Barne ministro ohia... Azken honen protagonismoa Donostiako hautagaitza kakaz estaltzen bereziki nazkagarria izan da, mota guztietako argudioak erabiltzen ari baita, erabakia berrikusteko errekurtsioa aurkeztu behar dela erran duenean.

Dena den, argudiorik erabiliena izan da, nola ez, politikoa. Oraingo Donostiako alkatea Bildukoa izateak senetik ateratzen ditu. Erabaki politikoa izan dela argudiatzen dute, hain justu alderantzizko erabaki politikoko baten espero zeudenean; hau da, erabakia Donostiaren kontrakoa izatea bertako alkatea Bildukoa izateagatik.

Kordobako alkatearen arabera, modu anonimoan jaso ditu zenbait dokumentu zeinetan frogatzen den pertsona batzuek joko zikina egin dutela Donostiaren hautagaitzaren alde. Interesatuak ezetz, egindako kontaktuak eta harremanak araudiaren arabera egin izan direla. Momentuz Kultur Ministerioak ikerketa bat irekitzea lortu dute, gauzak lege egin diren baieztatzeko edo ez. Izendapena oraindik behin-behinekoa denez, erabaki horretan europar epaimahaiak atzera egin dezala aldarrikatzen dute.

Pentsaera inperiala duten horiek ez dakite galtzen. Galtzen jakiteko apaltasun pixka bat edukitzea behar delakoz.

**«Erabaki politikoa izan dela argudiatzen dute, hain justu alderantzizko erabaki politikoko baten esperoan zeudenean; hau da, erabakia Donostiaren kontrakoa izatea, bertako alkatea Bildukoa izateagatik»**

### Orain dela 30 urte

Mikel TABERNA IRAZOKI «Kapi»

**O**rain dela 30 urte, abuztuan, kolpe gogorra hartu genuen paraje hauetan mutil ile-kixkur bat maite genuen guziok. Aiako Harriaren xoko gordeak aurkitzera abiatu ziren lau gazte baliente, eta kaskoraino ailegatu ere bai. Beheiti-rakoan, ordea, harri zorrotz batek soka moztu, eta gure lagunaren bizi-kordela ere ebaki! *Gimondi* erraten genion kuadrillan, *Koldo* Bilbo aldeko lagunek, *Luismari* etxeok. Hagitz gogorra izan zen. *Zoki* lesakarrak erraten duen bezala, debekatua egon beharko luke inor hain gaztea delarik hiltzeak.

Haren omenezko egun berezi bat antolatu genuen. Lehenbiziko, mendira joan ginen, Labiagara. Gainaren azpiko lepoan, hango pagadiaren bazterrean, pago gazte bat landatu genuen. Espero genuen arbola hark luzaro irautea, eta gure oroitzapenak ere bizirik segituko zuela zuhaitzarekin batera. Herriaritzultzean, argazkiak ikusi genituen, hitz batzuk izan ziren eta Imanolek kantaldi hunkigarria eman zigun. Handik hilabete batzuetara, guk halako maitasunez sarturiko landarea norbaitek puskatu zuen. Haren partez bertze bat paratu, eta berriz ere hautsia agertu. Ez dakit zenbat aldiz kontu bera. Hondarreko, landarea hobeki babesteko, burdinazko hesia egin zitzaion inguruan. Eta horrekin konpondu zen afera. Gaur egun, arbola zutik dago bere lekuan, gero eta ederrago; baina zerrakura ere hantxe dago, nahiz eta orain haren beharrik ez izan.

Pentsatzen jarrita, pago gaztea nahiko oroigarria baldin badugu, ez ote genioke gerriko hura kendu beharko eta, gehienez ere, seinale diskretu bat utzi? Lehenago babesa zena, ez ote orain traba? Naturalezan, nahitaezkoa ez bada, ez ote hobe gauza arrotzik ez txertatzea? Uste dut gure *Gimondik* berak ere igualtsu galdetuko lukeela. Gai delikatua da, gure sentimenduak tartean daudelako, baina ea ados jartzen garen horretan ikustekoa dugun guziok.

Heldu den abuztuan, 30 urte, baina segitzen dugu ile-kixkur maitagarri hura ondo-ondoan sentitzen. Geure baitan eramaki dugu gutako bakoi-tzak!

**«Pago gaztea nahiko oroigarria baldin badugu, ez ote genioke gerriko hura kendu beharko eta, gehienez ere, seinale diskretu bat utzi? Lehenago babesa zena, ez ote orain traba? Naturalezan, nahitaezkoa ez bada, ez ote hobe gauza arrotzik ez txertatzea?»**



**Prentsatik bildutakoak**

«Etxean gordeta geneukan sega zahar bat hartu, zorroztu eta Leitzelarreko belatxoetara joaten hasi nintzen. Azkenean, sega gus-tatu egin zitzaidan, txapelketetan parte hartzen hasi nintzen». «Sakrifizio asko eskatzen duelako daude hain segalari gutxi; gaur egun ezi-nezkoa da profesio-nal izatea eta jende-ak beste kirol batzuk aukeratzen ditu».

**Jon KANFLANKA**  
Leitzako segalaria  
D.NOTICIAS, 2011.07.17

«Bai [Mobila eramaten dut oporretera] Gure lanean ez dakizu inoiz lanean egonen zaren ia iraila hasi arte, eta beti egon naiz zain, baina astean behin edo bitan bakarrik pizten dut mobila, ikusten dut nork deitzen nauen eta agian amari eta aitari deitzen diet, eta listo. Musika eta irratirik ere ez dut eramaten opo-rretan, liburua erama-ten dut beti. Andu Lertxundiren azkenare-kin ari naiz orain».

**Estitxu FERNANDEZ**  
TB aurkezle lesakarra  
GARA, 2011.07.20

**11 galdera labur**

**Sunbillan jaiotako orkoiendarra edo Orkoienen bizi den sunbildarra?**

Orkoienen bizi den sunbildarra.

**Sunbillako Santiburtzioak edo Orkoiengo Sanmigelak?**

Sunbillako Santiburtzioak eta Iru-ñeko San Ferminak.

**Eta inauterietan, Sunbillan edo Orkoienen?**

Sunbillan.

**Orkoiengo zer gauza eramane- zenuke Sunbillara?**

Polikiroldegia eta estalitako igerile- kua.

**Eta Sunbillatik zerbait eramane- zenuke Orkoienera?**

Paisaia eta jendearen izaera.

**Baserriko bizimodua ala hirikoa?**

Baserriko lasaitasuna eta hiriko mu- gimendua. Bakoitza bere momen- tuan.

**Urtean zenbat aldiz pasatzen du- zu Belate?**

Ez dut sekula konturik eraman, bai- na aunitzetan.

**Atletismoan Espainiako txapeldun kadete mailan... Nora ailegatu nahi zenuke?**

Oraindik gaztea naiz, baina amets bezala, selekzioaren partaide iza- tea eta Europa mailan konpetit- zea gustatuko litzaidake.

**Lasterka egiteaz gain, bertze kiro- lik egitea gustatzen zaizu?**

Orain arte praktikaturako guztiak gustatzen zaizkit: atletismo barne- ko saltoak, saskibaloia, futbola, es- kubaloia...

**Olinpiadekin amets egiten duzu?**

Bai, bertze edozein atletak beza- la, baina hagitx zaila ikusten dut.

**Zein da miresten duzun atleta?**

Naroa Agirre, Usain Bolt...



**Ane PETRIENA → Sunbillako atleta gaztea**

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeri 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gu- tuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, he- rria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttiipi.net**

Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**

Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

**Gure Haragia**  
**Nuestra Carne**

**TTIPI-TTAPA & ZURE LAGUNTZA BEHAR DU**

Zure laguntza eskertzen  
**DOKUMENTU-POLTSA**  
Bai izanen duzu opor!

**Can**  
proiektu  
zenbakia  
**15.996**

**TTIPI-TTAPA**

**BORTZIRI**  
**UNSION ANAIAK**  
Sukalderako altzariak

Bereko etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 266 • 907 226 881 • Fax: 948 637 511





## Udako merkealdia

edredoi fundak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak  
albornozak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



60  
antzerkio  
Casa Cambra



## ARANTZAKO UDALAK

besta onak opa dizkizue aranztar eta bisitari guztiei





Jaime ITURRIA | Arantzako alkatea

## «Txupinazoa 14an bota arren, bezperan ekitaldiak izanen dira»

Ilusioz eta gogoz hasi du Jaime Iturria Mitxelenak Arantzako alkate bezala ibilbide berria. Ekainaren 11z geroztik, berak du Herriko Etxeko aginte makila eta bi hilabete eskas pasatu direnean, **«gustura»** dagoela erran digu. Hala ere, udaletxeko lana ez zaio sobera arrotza egiten. Izan ere, lanbidez iturgina den arren, 2007tik 2011rako agintaldian zinegotzi izandakoa da eta hilabete batzuz alkate lanetan ere ibilia da, Ainara Maia alkate ohiaren orde. Alde horretatik, badaki zer den alkate izatea. Bere hitzetan, zinegotzi izatetik alkate izatera pasatuta, **«lan pixka bat gehiago egin behar da, baina gainerakoan aldaketa haundirik ez dut somatu»**. Eta amabirjin bestak ere **«aunitzik ez aldatzea»** espero duela aitortu digu, nahiz eta **«gauez besta guttixeago egin beharko dugula»** dioen umoretsu. Bestetako lehenbiziko eguna da Iturriarentzat gustukoena: **«txupinazo egunean, jendea fresko egoten da eta bestarako gogoz»**. Bertzalde, ekitaldien artean bat auke-ratzekotan, herri bazkaria omen da gehien gustatzen zaiona.

Baina herriko bestak horiek baino gehiago dira eta aurten ere ekitaldiz betetako egunak antolatu dituzte Udalak eta Besta Batzordeak elkarlanean. Joan den urtean bezalatsuko aurrekontua izanen dute: **«17.000 euro ingururen bueltan ibiliko gara»**, azaldu digu Iturria.



riak. Joan den urtera arte, borts eguneko bestak izaten ziren Arantzán, baina aurrekontua murrizte aldera lau egunekoak antolatzea erabaki zen. Aurten ere halaxe egingen da. Eguna aprobetxatze aldera, berriz, txupinazoa eguerdian botako da, hau ere iaz bezala. Lerro hauek idazterakoan beste hasiera emanen dien suziria nork botako duen ez dugu argitu ahal izan.

Dena den, Udalaren lau eguneko bestak baino lehenagotik eta egitarauko azken eguna pasatu ondotik ere, izanen da mugimendua herrian. **«Txupinazoa abuztuaren 14 eguerdian, igandearekin, botako den arren, larunbat arratsaldetik aitzinera ere izanen dira ekitaldiak—dio alkateak—: herri krosa, trikipotea, Elkartasun Afaria Ekaitza Elkartean eta gauean dantzaldia Gazte Asanbladaren eskutik»**. Herri krosa aurtengo beste-tako berrikuntzetako bat izanen da, lehenbiziko aldia baita horrelako zerbait egiten dela Arantzán. **«Abuztuaren 13n arratsaldean egingen da, lehenbizi haurrena eta ondotik helduena. Lasterka ibiltzeko dagoen afizioa ikusita, ea animatzen den jendea»**. Eta bestak bukatu ondotik, abuztuaren 20an Arantza Rock 2011ren txanda izanen da. Burubelarri dabil hori prestatzen Gazte Asanblada eta zein taldek joko duten ere jakina da: Sutan, Itziarren Semeak, Zea Mays eta Laket.

Bukatzeko, herritarrek bestetan parte hartzea animatu nahi izan ditu alkate izendatu berriak eta bisitariei ere gonbitea luzatu die: **«lasai etor daitezela, ongi pasatuko dute eta»**.





## EGITARRAUA



### Abuztuak 13 larunbata **BESTEN BEZPERA**

**17:00** Haurrentzako krosa. **17:30** Helduentzako krosa. **00:00** Dantzaldia JOXPA taldearekin. Atsedena dion MINGAINLUZE.

### Abuztuak 14 igandea **BESTEN HASIERA**

**12:00** Altzaferua Herriko Etxetik. Ondotik presoan aldeko brindisa eta kalejira herriko txistulari eta txarangarekin. **12:30** Herriko dantzari ttikien emanaldia. **17:30** Herri kirolak frontoian. **18:00** Haurrentzako tailerrak. **19:00** Bertso Saioa plazan. **21:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. **21:30** Elkartasun afaria Ekaitza Elkartean. **00:00-04:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.



### Abuztuak 15 astelehena **AMABIRJIN EGUNA**

**10:00** Argisoinuak herriko musikariekin. **11:00** Meza Nagusia eta prozesioa. **12:30** Herriko dantzariak zortzikoa dantzatuko dute. **18:00** Haurrentzako tailerrak. **19:00** Profesionalekin pilota partidua frontoian. 1. partidua: MITXELENA – ALTUNA / ALTZUGARAI – MADARIAGA. 2. partidua: MIKEL GOÑI – BEÑAT MITXELENA / MENDIZABAL – EULATE. **20:00** Dantzaldia GAUBELA taldearekin. **21:30** Suzko zezena. **00:00-04:00** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.

### Abuztuak 16 asteartea **HAURREN EGUNA**



**10:00** Argisoinuak herriko musikariekin. **11:30** Entzierro ttikia eta buru-haundiak. **14:00** Haurren bazkaria. **16:00** Haurrentzako puzgarriak frontoian. **17:00** Plater tiraketa Usua Ehiztari Elkartearen eskutik. **19:00** Herriko kantari berrien emanaldia. **21:00** Dantzaldia Jalisko Band taldearekin. **21:30** Suzko zezena. **00:00-04:00** Dantzaldia Jalisko taldearekin.

### Abuztuak 17 asteazkena **BESTEN BUKAERA**

**10:00** Argisoinuak herriko musikariekin. **13:00** Kantu poteoa. **14:00** Herri bazkaria. **On-doren** poteoa eta kalejira txarangarekin. **20:00** Dantzaldia plazan. **20:30** Bokadilo jatea plazan. **00:00-04:00** Dantzaldia plazan.

### Abuztuak 20 larunbata **ARANTZA ROCK**

**17:00-20:00** Haurrentzako puzgarriak. **23:00** Kontzertuak plazan: Zea Mays, Itziarren semeak, Sutan eta Laket.







**Miel Joxe ARIZTIA** | Amaiurko sokatiralaria

## «Ikaragarria izanen zen 2012an Amaior Munduko txapeldun izatea»



36 urterekin, Amaiur sokatira taldeko tiralaririk beteranoena da Miel Joxe Ariztia, «15-16 urterekin hasi nintzen, baina 1995ean gelditu zen taldea eta orai sei urte hasi ginen berriz ere». Amaiurko bestetan ere erakustaldiren bat egiten dute, «baina konpetizioa baino lasaigaoa da, gozatzerat ateratzen gara eta ez du inporta irabazi edo galdu, jendearen aitzinean urte osoan egin dugun lana erakusteko izaten da», aipatu digu.

Amaiurko bestetan ez du hutsik egiten bezperan izaten den afarian, «400 pertsona izaten gara afaltzen eta kriston giroa izaten da, lehenbiziko eguna gogotsu hartzen du jendeak, Amabirjin eguneko erakustaldian ere han izaten naiz eta zikiro eguna ere polita da». Baina

besta aitzineko antolaketa eta montaketa auzolanetan ere ez da urrun ibiltzen Aritzia. «Besta batzordeak buru egiten du, baina herri osoa inplikatzeko gara ostaua paratzen, kioskoa, Artzain Eguneko aferetan...».

Herriko alkate ere izan zen bi urtez, 2009 eta 2010ean, «nahiz eta bestak denen artean antolatu, lan gehixeago izaten da, alkateari pixket tokatzen zaio, ekitaldi ofizialetan egon behar duzu... Kanpotik aunitz lasaiago bizitzen dira bestak». Kanpoko jende gehien mugitzen duen ekitaldia Artzain Eguna izaten da eta antolaketa ere lan handia ematen du: «Amairu lotua dago artzain zakur lehiaketarekin, 37. urtea da aurtengoa eta horretan lan egiten da fuerte, ahalik eta artzain eta zakur hoberenak biltzen dira, batzuk buru-belarri horretan aritzen dira».

Amaiur 1512-2012 Ekimena ere hitzetik hörtzera dabila eta 500. urteurrenaren karietara heldu den urteko bestak ere bereziak izanen diren galdegin diogu Ariztiari: «Bestetan ere zer-bait somatuko da —dio—, baina ez du eragin zuzenik izanen. Amaiurko borroka 1522ko uz-tailaren 19tik 21era izan omen zen eta Baztandarren Biltzarrako asteburuan suertatzen denez, bai antolatut behar dugula ekimen potente bat. Horretan ari gara, Pier Paul Berzaiz ere gurekin ari da. Amaiur eta Maule elkarlanean».

2012a Amaierako sokatira taldearentzat ere berezia izanen da, Eskozian Munduko txapelketan parte hartzeko asmotan baitabilta. Iaz Italian zilarrezko domina lortu zuten 560 kiloko kategorian eta esperientzia baliagarria izatea espero du. «Mundialaren urtea delarik denboraldi gogorra izaten dugu, eta berexia dudarik gabe. Mundualen parte hartzea ikusgarria izanen da. Baina Italian gure aldera joan ziren tiraldiak Eskozian bertze aldera ere gaten ahal dira, gu ahalik eta hobekien prestatuko gara». Hori bai, heldu den urtean Amaiurrek Munduko Txapelketa irabaztea lortuko balu «ikaragarria» izanen dela aipatu digu Miel Joxe Ariztiak, «baina arront zaila izanen da».







## EGITARAUA

### Abuztuak 14 igandea BEZPERA

**20:00** Su-ziriak eta ezkil jotzea. Txaranga herrien barna. **21:00** BAZTAN ZOPAK txaranga eta Joxe Anjel akordeolariarekin. Sarrerak Amaiurko Gaztelu ostatuan eta Elizondoko Txokoton eta Antxitonean. **00:30** Gaupasa TRAKETS taldearekin.

### Abuztuak 15 astelehena AMABIRJIN EGUNE

**10:30** Artisaauak eta ardi-lehiaketa trikitilariak alaitue. **11:00** Meza nausie. **13:00** Mutildantzak eta hameketakoa kanpoan bizi diren herritarrentzat. **17:00** Artzain zakur desfilea trikitilariak alaitue. **17:30** XXXVI. ARTZAIN ZAKUR LEHIAKETA eta Patxi Etxeberriaren VII. Memoria. **19:30** PERURENA aita-semeak eta sokatira. **20:30** Kantaldie GAZTELU taldearekin. **22:00** Mutildantzak, muxikoak eta gaita. **23:30** Mexikarrak.



### Abuztuak 16 asteartea HAURREN EGUNE

**11:00** Haurren esku-pilota finalak. **12:00** Herriko txistulariek. **14:00** Haurren bazkarie elkar-teen. **16:00** Haurrendako jokoak plazan. **18:00** ROKOPOLIS plazan. **19:00** Txokolatada haur eta gurasoentzat. **20:00** Dantzaldia Joxe Angel akordeolariarekin. **21:00** Mutildantzak, muxikoak eta gaita. **21:30** Zardin ta ziztor jatia plazan. **23:00** Dantzaldia Joxe Angel akordeolariarekin. **00:30** Txokolatada Gaztelu Ostatuan.

### Abuztuak 17 asteazkena ELEGANTZIE FANTZIE

**13:00** Aperitifa Santxonian, denak elegante-elegante. **14:00** Bazkari autogestionatue pre-san. **19:00** Kantaldie Garazirekin. **20:00** Paella lehiaketa. **21:30** Mutildantzak. **22:00** Eleganteenari sarie. **23:00-03:00** Dantzaldie Fidelekin.

### Abuztuak 19 ortzileria

**12:00** Mus zimizte Gaztelu ostatuan. **16:30** Pilota partidak: Frontenis finala (emakumeak), Pala finalak (gizonak), Esku pilota (afizionatuak). **19:30** Herri-kirolak. **23:30** Rock kontzertuek: Biok / Willis Drummond / Askatu ta ondotik DJ AK.

### Abuztuak 20 larunbata ZIKIROA

**13:00** Aperitifa. **13:00** X. Boneta jaurtiketa. **14:00** ZIKIRO JATEA Xalbadorrek alaituta. **21:00** Mutildantzak, muxikoak eta gaita. **00:00** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin. **06:00** Zinger ja-

**EDARIAK**

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

**VENTA PELO**

902 210 800  
[www.venta-pelo.com](http://www.venta-pelo.com)

Barrio (Administración) - Garazirekin (Gaztelu Ostatuan) - Zardin (Ziztor) - Ziztor (Zardin)

**ARTEKARI TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berriz egitearen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IWA eta IRPF
- Ehena alortzenak
- Elkarlanean eta jubilazio espedienteak
- Bidegaritasun planak eta aurrekontuak

LESARA: Bittina, 71-behea  
Tel: 948 637 050 - Faxo: 948 637 404  
BURLATA: La Viña, 4  
Tel: 948 133 328 - Faxo: 948 133 713  
[amaia@artekari.com](mailto:amaia@artekari.com)

TTPI-TTAPA ALDIZKARIA  
SARE SOZIALEAN

**facebook**

[www.facebook.com/ttapi.ttapa](http://www.facebook.com/ttapi.ttapa)

**AMAIURKO ERROTA**

FELIPE OARZABAL  
619 955 709  
[www.amaiurkoerota.com](http://www.amaiurkoerota.com)

UDAN: ortzegunetik-igandera NEGUAN: azarabururaino  
10:00-13:00 biziak gidatuak | 18:00-21:00 taberna-terak



**gaztelu sol**  
iturgintza  
kalafaktioa - sarrasmendua - gasa  
Tfnoa: 948 510 086 - 948 510 156  
Faxa: 948 510 856  
LEITZA

www.euskron.com  
**ONGI PASA PESTAK!!**  
**EUSKRON S.A.**

**ASTINEA**  
jaletxea  
*ongi igaro pestak!!*  
ARESO • Tfnoa.: 948 610 704

**ULI-ZAR**  
**ELKARTE A.S.L.**  
ITURGINTZA | BEROKUNTZA  
GASA - GASOLIOA  
KOMUNERAKO OSAGARRIAK  
MOBLEAK | MANPARAK  
*Pesta zoriontsuak igaro!*  
Bide-ondotzea • ARESO  
647 525 516 • 689 701 557

**BURNI LAN**  
eraikuntzak  
Garabi arinak • Polipastok  
**ONGI PASA PESTAK!!**  
Eluseder Spet  
ARESO | NAFARRA  
948 510 801



## EGITARRAUA

### Abuztuak 14 igandea PESTA BEZPERA

**16:30** HAURRENTZAT MERIENDA plazan Guraso Elkarateak antolatuta. **17:00** Arratsaldekoa haurrentzat. **18:00** ETXAFUEGOA botako da udaletxetik pestei hasiera emanez. **18:30** ENTZIERRO TXIKIA haurrentzat. **19:30** PATATA TORTILA lehiaketa. **21:00** HERRI AFARIA. **23:30** XXVI. MUS TXAPELKETA herrikoia udaletxean.

### Abuztuak 15 astelehena AMA BIRJINAREN EGUNA

**09:30** Diana herriko txistularien eskutik. **11:00** MEZA NAGUSIA udal ordezkariekin eta herriko haur dantzariak arkua egingo dute. **Ondotik** HAMAIKETAKOA eskainiko du udalak plazak. **12:30** HAURREN INGURUTXOA plazan. **13:00** Pilota partidak. **18:30** AIZKOLARIAK plazan. **Ondotik** ARESOKO INGURUTXOA dantzatuko da. **Arratsaldean-iluntzean** DULTZAINEROAK ibiliko dira herrian. **23:30** Dantzaldia IZER ETA ALABIER trikitilariak.



### Abuztuak 16 asteartea

**09:30** Diana herriko trikitilariak. **14:00** HERRI BAZKARIA Pake-Toki eta Larrea elkarateak antolatuta eta bertsolariak alaituta. **18:00** Bertso-pilota plazan. **19:00** VIII. Sagardo das-taketa, sardina eta txistorrekin. Freskagarriak haurrentzat, Gizarte Zerbitzuaren laguntzarekin. **21:30** Alurr dantza taldearen emanaldia. **00:00** Dantzaldia TXIMELETA taldearekin.

### Abuztuak 17 asteartea UMEEN EGUNA

**09:30** Diana herriko txistulariakin. **11:00** PUZGARRIAK haurrentzat. **13:00** Gaztetxoaren arteko pilota partidak. **16:00** PLATER TIROKETA Usoa elkarateak antolatuta. **17:00** PATXIN ETA POTXIN PAILAZOen emanaldia. **18:00** ENTZIERRO TXIKIA herrian barrena haurrentzat. **18:30** Haurren TXAPEL TIRAKETA. **Ondoren** Dantzaldia LAIOTZ taldearen eskutik. **21:30** HERRI AFARIA Guraso Elkarateak antolatuta. **00:00** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

### Abuztuak 17 asteartea UMEEN EGUNA

**09:30** Diana herriko trikitilariakin. **11:00** Kalejira JAINEKIN txarangarekin. Herriko auzoetan hamaiketako jarri dute koadrilek. **15:00** PAELLADA koadrila guztientzat. **17:30** KOADRI - LEN ARTEKO JOKUAK. **Ondotik** trofeo banaketa. **21:30** Bokadillo jana. **00:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearen eskutik. **Ondotik** DJ BULL.







## EGITARAUA

### Abuztuak 14 igandea

21:00 HERRI AFARIA. **Gauez** Dantzaldia LOPATEGI AHIZPA trikitilariak.



### Abuztuak 15 astelehena AMA BIRJIN EGUNA

10:00 ARGI SOINUAK. 12:00 MEZA NAGUSIA. **Goiz-arratsalde** Umeen parkea. 18:30 Herriko aizkolarien saioa. **Arratsalde-Gauez** Dantzaldia. TRIKIHOTS taldearekin.



### Abuztuak 16 asteartea


10:00 ARGI SOINUAK. 18:00 HERRI KIROLAK gazteen artean. 18:30 Afizionatuen arteko PILOTA PARTIDAK. **Arratsalde-Gauez** Dantzaldia. GABEZIN taldearekin.

### Abuztuak 17 asteazkena

10:00 ARGI SOINUAK. 11:00 Herriko MUS txapelketa. 18:30 Afizionatuen arteko BINAKAKO PILOTA PARTIDAK. **Arratsalde-Gauez** Dantzaldia. ZESUMA taldearekin.

### Abuztuak 18 ortzeguna

10:00 ARGI SOINUAK. 14:00 HERRI BAZKARIA. 18:00 Aizkora apustua ERASUN-REKONDO. **Arratsalde-Gauez** Dantzaldia. JOXE ANGEL akordeolariarekin.



**EZKAIN** eraikuntzak S.L.



ongi pasa  
pestak!!

Lizarraga, 3 • LEITZA  
M. 650 910 868 • 650 910 867  
T/F. 948 610 956 • 948 610 956



**LOHITZYNE**  
eraikuntzak

etxeak, teilatuak eta  
eraikuntzak orokorrean

**ONGI PASA HERRIKO BESTAK!**

Tfnoa: 948 615 110  
Mug.: 699 461 386  
Penta etxea • 31749 EZKURRA





Migel Angel AGERRALDE | Akordeolaria

## «Donamariako bestetan oporrak hartzen ditu»



Migel Anjel Agerralde ezaguna da eskualdean. Donamariarra herriz herri eta bestaz besta ibiltzen da akordeoia eta teklatura lagun dituela. Bederatzi urte zituela hasi zen akordeoia ikasten. Urte batzuk pasata egin zuen jende aitzineko lehen pausua «16 urterekin hasi nintzen bazkari eta bestetan akordeoia jotzen».

Ttikitatik izan du musikarekin zaletasuna baina musika mundura bultzatu zuena aita izan zen, «attari musika izugarri gustatzen zaio eta akordeoia ikasteko animatu ninduen». Akordeoiaren ondotik etorri zen pianoa ere eta pixkanaka-pixkanaka plazetan jotzen hasi zen.

Migel Anjelek udan izaten du lan gehien musikari gisan, herri gehienetan bestak uda partean izaten baitira. Zer erranik ez Amaberjinetan, baina Donamariako bestentzat gordetzen ditu egun horiek. «Bertze herritako bestetan lana egiteko aukera handia izaten da baina nik oporrak hartzen ditut herriko bestak gozatzeko». Ez baita berdina herriko bestetan ibiltzea edo bertzeei besta-giroa paratzea.

Herria bezainbertze maite ditu herriko bestak eta ez die alde txarrik ikusten. Ez luke Donamariako bestetatik deus ere aldatu edo gehituko «beti pentsatzen da zerbait aldatu behar dela, baina dauden bezela ongi daude».

Donamariako bestetan ahal bada egunero egiten du parranda Migel Anjelek «gorputzak aguantatzen duen arte». Bertzenaz, bi egun aukeratuko lituzke, bezpera eta zikiro eguna, «egunik politenak» direlako. Bezperan besta egiteko gogotsu eta fresko egoten delako, eta zikiro egunean herriko guztiak elkartu eta giro polita sortzen delako.

Migel Anjel egun horietan topatu nahi duenak badaki Donamarian izanen dela, besta bertze modu batean gozatzen.







## EGITARAUA

### Abuztuak 14 igandea

**14:00** BAZKARIA Herriko Ostatuan. **17:30** GINKANA. **20:00** ALTXAFEROA. **Ondotik** trikitilariak eta buruhaundiak. **21:00** ZOPAK Herriko Ostatuan. **Gauez** trikitilariak eta ondotik KOMANDO KASTAÑAREN kontzertua.

### Abuztuak 15 astelehena AMA BIRJIN EGUNA

**10:00** Aрги soinuak. **11:30** Meza nagusia. **12:30** Dantzak herriko gaztetxoek eskutik. **Ondotik** Luntxa Herriko ostatuan. **18:00** PILOTA PARTIDAK (lehendabiziko herriko pilotari gazteak eta ondotik afizionatuak). **20:00** IV. TXAPEL TIRAKETA. **Gero** buruhaundiak. **Arratsalde eta gauez** Dantzaldia MENDIBERRI akordeolariarekin.



### Abuztuak 16 asteartea GAZTEEN EGUNA

**10:00** Aрги soinuak. **11:30** Penalti txapelketa. **13:00** AIZKORA APOSTUA Donato Larretxea-Anjel Arrospide Vs. Floren Nazabal-Juan Jose Lopez. **14:00** Gazteen BAZKARIA herriko ostatuan. **17:30** HERRI KIROLAK. **22:00** BERTSO AFARIA Julen Zelaieta, Jon Elizetxe eta Julio Sotorekin. **Arratsalde eta gauez** Dantzaldia FIDELekin.



### Abuztuak 17 asteazkena

**10:00** Aрги soinuak. **11:00** PLATER TIROKETA. **Goiz eta arratsalde**z haurrentzako JOLAS PARKEA (karts pista eta puzgarriak). **17:30** MUS TXAPELKETA herrikoia. **19:00** Txokolatada. **19:30** PATATA TORTILLA LEHIAKETA. **22:00** KANTU ZAHAR AFARIA herriko pilotalekuan. **Arratsalde eta gauez** Dantzaldia BIXENTE akordeolariarekin.

### Abuztuak 18 ortzeguna

**10:00** Aрги soinuak. **14:00** HERRI BAZKARIA. Bertsolariak: Angel Mari Peñagarikano eta Mañukorta. **Ondotik** BIXENTE akordeolariak alaituko du. **Arratsalde eta gauez** Dantzaldia JALISCO BAND taldearekin.





Migel MARI IRIGOIEN | Etxalarko alkatea

## «Bestak prestatzen jende aunitz aritzen da, eta eskertzekoa da»



1983tik 1987ra zinegotzi izan zen, oposizioan. 1987tik 2005eko urte hondarrera arte alkate. Orain, maiatzaren 22ko hauteskundeetan ondotik, berriz ere alkatetza eskuratu du Migel Mari Irigoienek 58 urterekin. Beretzat gisa honetako lanak gauza berria ez badira ere, «herriko bestak bertze ardura batekin» bizitzen direla onartu du. «Herriko Etxean ez zaudenean arras aldatzen da bizia, fabrikako lanetik aparte ordu aunitz izaten dira nahi duzuna egiteko eta alkatetzako ardurarekin, berriz, ordu aunitz lotuak gelditzen dira». Besten antolaketa udalaren esku badago ere, «gazteek ardura aunitz hartzen dute bere gain, dantzarien kontuak Altxatak

eramaten ditu, besta bezperako afaria bertze gazte talde batek prestatzen du, Asaua bertze talde batek... koordinazioa egiten du udalak eta musika eta ikuskizunak kontratazioak». Dena den, gauzak egiten eta lanak errazten duten jende guzti horien borondatea azpimarratu nahi izan du, «hori baita gehien balio duena eta ez da diruarekin ordaintzen».

Bestak antolatzen abudo hasten omen dira, «hainbat gauza urteberria baino lehenago, zenbait musika talde edo herri kiroleko aferak abudo hartzen ez badira, abuztu erdian ez baita inor libre izaten». Alde horretatik, kontu horiek denak aitzineko udal taldeak prest utzi zituela aipatu digu Etxalarko alkatea. «Guri besta aitzineko hilabete hauetan herriko jendearekin egiten diren gauzak lotzea tokatu zaigu».

Joan den urteko aurrekontu beretsua erabiliko du Herriko Etxeak, «30.000 euro izaten da urteko besta guztietarako, tartean Usategietako Igandea edo Gasna Ferria, baina zatirik handiena herriko bestetarako da». Programan, beraz, ez da aldaketa handirik izanen.

«Asau egunean duela urte batzuk gertatu zirenak ez gertatzea» espero du Irigoienek. «Azkeneko urteetan baretu da kontua, baina mantendu beharko dugu jendea ez dadila karreteran barna etorri, Beheko Landako bidetik barna baizik, ez gertatzeko autoekin inolako iskanbilarik».

Aurten txupinazoa nork botako duen ere erabakia dute Etxalarren, «bezperako afaria eta asaua antolatzen ibiliko direnek botako dute». Gainerakoan, bestetako programan gauza parrasta bat berdintsuak izaten omen dira urtero, tarteka gauza berriak sartu izandu direla aitortu badu ere. «Programaren oinarrian lehenago ere gauza berdintsuak izaten ziren, dantza, herri kirolak eta Asau Eguna ziren garrantzitsuak orduan, eta orain ere bai. Herriko jendeak gehien estimatzen dituenak dira». Berari gehien gustatzen zaion eguna Andramari eguna da, «goizean herriko dantzariak ikusi, arratsaldean herri kirolak... Asaura ez naiz joaten, kasik 60 urtetan nagoelako eta nere seme-alabekin ez dudalako kointziditu nahi, badakizu!».





## EGITARRAUA

### Abuztuak 14 igandea **BEZPERA**

**19:45** AGERRALDI ISILA. **20:00** ALTXAFERUA (txanpaina, karameloak eta globoak). **21:30** HERRI AFARIA. **00:00-04:00** Dantzaldia MODESTO akordeolariarekin. Gaurdi txarangak atsenaldietan eta akaberan joko du.

### Abuztuak 15 astelehena **AMA BIRGIN EGUNA**

**10:30** ARGISOINUA txaranga, kankailu eta buruhaundiekin. **11:30** Meza nagusia. **12:30** Herriko DANTZARIEN SAIOA. **Ondotik** Kultur Etxean hamaiketako dantzari eta musikari-entzat. **13:30** Gaiteroak plazan. **18:30** EUSKAL HERRIKO LASTO BOTATZE TXAPELKETA eta AIZKORA ERAKUSTALDIA. **19:30** BERTSOLARIAK: Sustrai Colina, Julen Zelaia eta Iñaki Aleman. **00:00-04:00** Dantzaldia DANTZADI taldearekin.

### Abuztuak 16 asteartea **HAURREN EGUNA**



**11:00-13:30/16:30-18:30** Joku parkea. **14:00** ASAU TTIKI. **17:00** XIX. MUS txapelketa. **19:00** Herriko gazteen arteko DESAFIOA. **20:30-22:00** TXUTXIN IBAÑEZ Mariatxiak. **00:00-04:00** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.

### Abuztuak 17 asteazkena

**10:30** Argisoinuak ZUPERRI fanfarrearekin. **11:30** Herriko haurren XXV. ESKU PILOTA txapelketa. **12:30** Bestetako afizionatuen pilota partidak. **18:00** TRIKITIXA jaialdia. **19:30-21:30** PATXI PEREZ ETA KONPAINIA. **00:00-03:00** Dantzaldia DANTZADI taldearekin.

### Abuztuak 18 osteguna **ASAU ETA JUBILATUEN EGUNA**

**10:30** Argisoinuak txaranga, kankailu eta buruhaundiak. **12:00** Bestetako afizionatuen arteko pilota partidak. **12:30** Mus eta pilota txapelketen sari banaketa. **14:00** Jubilatuen bazkaria. **14:00** Asaua ermitako zelaian. **16:30** Haurrendako Euskal Karaokea eta puzgarriak. **20:00-22:00/00:00-03:00** Dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.







Mikel PERNAUTE | Oronozko palista

## «Libre izanez gero, edozein egun ona da besta egiteko»

Nafarroako paleta goma txapelketa buruz buru irabazi du aurten Mikel Pernautek, 41 urteko oronoztarak. Lehendik ere irabazia da, binaka lau txapelketa eta banaka bertze hiru. Aspaldian ari da modalitate honetan, baina pilota gustatzen zaio orokorrean. «Gaztetan eskuz hasi nintzen, —aipatu digu— gero palaz eta Bost Kirolean ere aritu naiz Mezkitzen jokatzeko txapelketan (pala motza, pala larruzko pilotarekin, paleta goma, xare eta eskuz) ere aritu naiz, lauzpaborts urtez eta beti finalerdi inguruetara ailegatu naiz. Denetan ongi jokatu behar duzu». Pala luzean ere probatu du, Intxaustirekin batera entrenatzen aritu zen Bilbon eta gehien gustatzen zaioa izan arren, «etorkizun handirik ez duela» ikusita utzi zuen.

Aurten Oronozko bestetan paleta txapelketa antolatu behar omen dute, «baina ez dakit parte hartu ahal izanen dudana, ez dut denborarik. Abuztuaren barkazioak ditut, baina Anizko baserrian gainean ibiltzeko hamar behor ditut, baita ahuntzak ere, 80 bat, azien da franko ditut eta dena nehorrek egiten dut, belarrak egin behar dira... Hala ere, saia-



tuko naiz jokatzeko» erran digu Oronozkoak. Bestetako antolaketa lanetan ez du parte hartzen, Iruñeko lanak eta baserrikoak ez diotelako uzten, baina badaki «hiru-lau lagun ari direla bestetako afera mugitzen, batek musika, bertzeak ekitaldiak...». Posible izanez gero, «pixket juerga egitea» gustatzen zaio Pernautei eta hutsegiten ez duen ekitaldien artean «zikiroko eguna izaten da, baina edozein egun ona da besta egiteko, libre izanez gero».

Garai batean egiten zen bezala, «berriz ere bakillak ekartzea gustatuko litzaidake, pixket toreatzea eta toreatzen ikustea gustatzen zait. Batez ere rejoneadoreak gustatzen zaizkit, zaldi gainean toreatzen dutenak, aise politagoa da. Baditut lagunak rejoneadoreak direnak, Armendariz, Hermoso de Mendoza... azken honi behor bat erosi berri diot, bi baditut domatuak eta bertze batekin hasi naiz orai». Garai batean, pala txapelketen finaletan ere jende aunitz biltzen omen zen Oronozko pilotalekuan.

Bestak gehiago jatearekin eta edatearekin lotzen baditugu ere, Pernautek bere burua zaintzen duela aipatu digu «ez naiz gazte denboran bezala pasatzen».



## EGITARAUA

### Abuztuak 12 ortzirala

**10:00** Herri krosa. Karlos Eule I. memoria. **12:00** Suziria eta ezkil jotzea. **On-dotik** kalejira herrian barrena herriko gaztetxoek alaiturik. **14:00** Haur bazkaria. **16:30** Haur eta gaztetxoendako puzgarriak. **17:00** Mus zimizta txapelketa. **21:00** Baztan zopak. **00:30** Dantzaldia Frantxiskorekin. **06:00** Xingar jatia

### Abuztuak 14 igandea BEZPERA

**11:00** Herriko hurrek alaituriko kalejira. **12:00** Partxis txapelketa. **17:00** Herriko hurrendako jokuak. Ginkana. **Ondotik** merendua haurtxoendako. **18:30** Herri kirolak herriko plazan. **20:30** Dantzaldia eta mozorro besta. **21:30** Txistorrada eta patata tortilla lehiaketa. **00:30** Dantzaldia Santxotenaren eskutik.



### Abuztuak 15 astelehena AMA BIRGIN ETA GAZTE EGUNA

**10:30** Txistulari eta Gaiteroak. **11:00** Meza nagusia. **12:00** Herriko hurrek eskinitako dantza emanaldia. **13:00** Luntxa. **14:30** Gazte bazkaria. **18:00** Pala finalak. Eta Melo Berhori omenaldia. **20:30** Dantzaldia. **21:30** Kuadrilen afaria. **00:40** Dantzaldia.

### Abuztuak 16 asteartea HERRIKO EGUNA

**10:00** Kantatutako aurorak. **14:00** Herri bazkaria. **On-dotik** mahai inguruan kantatzeko kantu zaharrak. **18:00** Dantzaldia. **20:30** Txorizo eta gasna dastaketa. **21:00** Txiste lehiaketa. **00:00** gaixoa ni.







**ARRATE EJTETIKA ZENTROA**

**DENONTZAKO ESTETIKA PROFESIONALA**

- Aurpegirako garbiketa 55€
- Aurpegirako zimurren aurkakoa 60€
- Aurpegirako reafirmantea 60€
- Aurpegirako Eguzkiaren ondorengoa 37€
- Kosmetika Holistikoa eta Tratamendu berri gehiago!!

*Aukara zabala!*

**ESKATU PREZIOEN ZERRENDA**  
Eleanke pasatu festa!

Imzakerm, 7 | DOMEZTEBE (Nafarroa) | 948 450 288



**MADERAS SANTESTEBAN**

Mendi-lanak  
(Prestak, instalazioak)

Bigak  
Mantelak, obrak  
Telakurak egiteak  
Jaiak, festa eta zerbitzuak

Oso garritak  
Autokidatze tratamendua

Arrieta parke | Zubietako Udala | 948 46 06 77  
info@maderas-santesteban.com



**Zalain**  
JATEXKA RESTAURANTE

Zalain Auzoa sgt. 31760 Bera - Nafarroa  
948 631 106 | www.zalain.com



**ZUBIETAKO UDALA (NAFARRA)**

Zubietako Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue  
zubietar eta  
bisitari guztiei



Mikel TELLETXEA | Zubietako festa batzordeko kidea

## «Omenaldia egingen zaie orain 40 urte lehen ateraldia egin zuten joaldunei»



Mikel Telletxea zubietarra hainbat urtez zinegotzi izandakoa da. Zinegotzi lanak bukatuta, aurtur besta batzordean laguntzaile izanen da. Bost eguneko festa izanen da aurtengoa. «Krisiak eragina izan du aurrekontuetan eta horrek ere programan eragina izanen du». Festek duten aurrekontuarekin ahalik eta onenak antolatzen ahalegintzen direla esan du Mikelek «ez da erraza izaten denen gustokoak egitea. Beti da zerbaiten falta edo hobetu daitekeena, baina ahal duguna egiten dugu».

Urtero bezala antzeko gauzak izanen direla gaineratu du Mikelek «ez dira faltako aizkora apustua, plater tiroketa, musika...» eta faltako ez dena ere arbola altxatzea izanen da. Horixe baita festetako momenturik onena «bai niretzat eta baita herritar guztientzat ere, jende gehien orduantxe biltzen da jaietan». Zerbait berezia omen du jaien bezperan egiten den ekitaldi horrek.

Aurtengo festek, ordea, badute beste berezitasun bat. «Omenaldia egingen zaie orain 40 urte lehen ateraldia egin zuten joaldunei» dio Mikelek, «ordutik herriz herri buelta asko egin dituzten arren, lehenengo aldi hura gogoratzea polita izanen da». Lehenbiziko bidaia Errenterira egin zuten Zubietako joaldunek. Hori ospatzeko eta gogoratzeko egingen zaie omenaldia Ama Birjina egunean.

Udaltxeak antolatzen ditu festak eta herritarrek ahal duten heinean laguntzen dutela dio Mikelek. «Herriko gazteek ere antolatzen dituzte gauzak eta hori pozgarria izaten da», izan ere, azken urteetan herriko festetako giroa jeisten hasia zela esan digu, baina ari dela pixkanaka buelta hartzen herriko jendearen lanari esker.

Arbola altxatzea da berarentzat momenturik onena baina, aukeran, herriko bestak edo inauteriak jarrita, ez du zalantzarik egin. Inauteriak aukeratu ditu «oso desberdinak dira. Gehienek inauteriak aukeratuko lituzkete, seguru! Herrian mugitzen den jende kopurua ere handiagoa da. Esan daiteke herriko benetako bestak inauteriak direla».

Herria inauteriengatik Euskal Herri osoan ezagun bada ere, Mikelek jendea Zubietako festetara etortzeko gonbidatu nahi luke, «herri giro goxoa aurkitu du eta ongi pasako duela etortzen den edozeinek!».





# EGITARRAUA



## Abuztuak 14 igandea BEZPERA

**20:00** Herriko Txistulariak. **21:30** 'Zopa handiak' Herriko Ostatuan eta Errandonean. **00:00** ARBOLAALTXATZEA eta JOALDUNEN ibilaldia. **Ondotik** Dantzaldia JALISKO BAND taldearen eskutik.

## Abuztuak 15 astelehena AMABIRJINAREN EGUNA

**08:00** DIANA. **11:00** Meza nagusia. **Gero** txistulariak eta Zubietako joaldunak. **Ondotik** orain dela 40 urte, Herriko Bestetan, lehenengo aldiz parte hartu zuten JOALDUN eta hauen GIDARIARI OMENALDIA egingen zaie. **12:00** AIZKORA APOSTUA. Ander Erasun-Oihan Larretxea. **18:00** Ibintza taldeko DANTZARIAK. **Arratsaldez-gauetz** Dantzaldia ASTIAZARANANA-IAK taldearekin.



## Abuztuak 16 asteartea

**08:00** DIANA. **Egun osoan** HAURRENTZAKO PUZGARRIAK. **12:00** HERRI KIROLAK. **16:00** MUS TXAPELKETA. **17:00** PATATA TORTILA lehiaketa, **Ondotik** BERENDUA. **Arratsaldez-gauetz** Dantzaldia AIERRIK taldearekin.



## Abuztuak 17 asteazkena HAURREN EGUNA

**08:00** DIANA. **Egun osoan** HAURRENTZAKO PUZGARRIAK. **11:00** MARRAZKI LEHIAKETA. **Gero** haurrentzako JOKOAK eta TAILERRAK. **Eguerdian** haurrentzako BAZKARIA. **16:30** KULKI TALDEA. **17:00** PLATER TIROKETA herritarrentzat. **19:00** FUTBITO PARTIDA. **Arratsaldez-gauetz** Dantzaldia SALVADOR MADARIAGA akordeolariarekin.

## Abuztuak 18 osteguna

**08:00** DIANA. **Egunean zehar** HAURRENTZAKO PUZGARRIAK. **11:00** Haurren PILOTA PARTIDAK. **12:00** Helduen arteko pilota finalak. **14:00** HERRI BAZKARIA. **Ondotik** herriari buelta eta helduentzako jokoak. **Arratsaldez-gauetz** Dantzaldia DANTZADI taldearekin. **22:00** XINGARRA eta XISTORRA JATEA. **02:30** ARBOLA BOTATZEA beste bukaera emanez.







**ZABALA Y GOIKOËTXEA  
ERAIKUNTZAK**

**OSTIGI PARRA FETAK**  
Gure Amaia GOIZUETA  
Tlf: 948 514 228 M. 679 47 98 93 - 679 47 98 78



**antsa**  
jendaridendo

GOIZUETA

**ZABALETA** laberna

**OSTIGI PARRA FETAK!!!**

Nagusia, 42 • 948 514 063 • GOIZUETA



**MAI**

**OKINDEGIA  
GOZOTEGIA**

**Jol zerbitzuak  
ope Jolazuega !!**

**bai**

K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 342



**analak  
apezetxea**

**ongi  
igaro  
festak**

**Idoia, 71 - 1ª • 31745 GOIZUETA**  
Tel: 650 20 16 27 • 699 63 24 00  
[www.apezetxeanalak.com](http://www.apezetxeanalak.com)  
[excavaciones@apezetxeanalak.com](mailto:excavaciones@apezetxeanalak.com)



## EGITARAU

### Abuztuak 7 igandea HAURREN EGUNA

**09:00** Diana herriko txistulariekin. **11:00** Meza. **12:15** Txaranga. **12:30** Pilota partidak. **14:00** Haurrentzako bazkaria. Txartelak estankotan salgai. **17:00** Zezenak eta poniak herriko plazan. **18:00** Haurrentzako berendua. **19:00** Futbol partida. **Ondotik** Dantzaldia Modesto akordeolariarekin.



### Abuztuak 13 larunbata GAZTEEN EGUNA

**14:30** GAZTE BAZKARIA. **00:00** Dantzaldia GABEZIN taldearekin.

### Abuztuak 14 igandea AMABIRJIN BEZPERA

**08:00** ENTZIERROA. **12:00** Txupinazoa. **Ondotik** trikitilariak erraldoi eta buru-haundiak. **Gero** ETXERATEN txoznan Euskal Presoen aldeko brindisa. **16:30** Sorpresa. **18:00** Zezenak. **19:30** Umore-Ona peñaren irteera txarangarekin. **00:00** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin. **Ondotik** txaranga.



### Abuztuak 15 astelehena AMABIRJIN EGUNA

**07:00** Tolosako dultzaineroekin diana. **08:00** Entzierroa. **10:30** Meza nagusia. **Ondotik** Prozesioa Amabirjinarekin. **Gero** Herriko txistulariak erraldoi eta buru-haundiekin kaleetan barrena. **12:30** Pilota partidak. **Ondotik** Igandea txaranga kaleetan zehar. **18:00** Zezenak herriko plazan. **07:30** BERTSOLARIAK: Sebastian Lizaso, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Xabier Silbeira. Gai jartzailea: Xabier Legarreta. **22:00** EUSKAL PRESOEN ALDEKO afari herrikoia Umore-Ona Elkartearen. **Gero** EUSKAL PRESOEN ALDEKO kalejira. **00:00** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin. **Ondotik** Igandea txaranga.



### Abuztuak 16 asteartea EMAKUMEEN EGUNA

**10:00** txaranga erraldoi eta buru-haundiak. **11:00-14:00** Puzgarrik eskolan. **12:30** Partida xelebreak. **14:00** Bazkaria, bertako bertsoariekin. **16:00-18:00** Puzgarrik eskolan. **Ondotik** Napolitanak. **17:00** Umore ona dantza taldea. **10:00-12:00** Dantzal-



dia DANTZADI taldearekin. **Gero** Txaranga. **01:00-03:00** Karaokea gaztetxean.

### Abuztuak 17 asteazkena SAGARDO EGUNA

**11:30** Toka. **12:00** Gipuzkoako eta Nafarroako sagardogile onenen partehartzearekin sagardo probaketa plazan. **16:30** Mus txalpeketa Ixkibin. **18:00** Zezenak. **19:30** Profesionalen arteko pilota partida




**00:00** dantzaldia BIDEbatez taldearekin.

### Abuztuak 18 osteguna UMORE ONA PEÑAREN EGUNA

**12:30** Aspaldiko ohiturari jarraituz, pilota partidak. GOIZUETA-ARANOn aurka. **15:00** Umore-Ona Peñaren bazkaria. **17:00** Peñaren kalejira kalez-kale Igandea txarangarekin. **Gero** zezenak. **Ondotik** dantzaldia HAITZAMA taldearekin. **00:00** Pobre de mitxarangarekin.







Pablo MIRANDA | Goizuetako alkatea

## «Emakumeei eskainitako egunarekin berdintasunerako pausu bat eman nahi genuke»



Amabirjin festa bereziak izanen dira aurtengoak Pablo Miranda, 30 urteko goizuetarrarentzat. Izan ere, lehenbiziko aldiz, herriko alkate bezala bitutuko ditu. «Herriari antolatu diren gauzetan orain arte zeharka hartu dugu parte eta orain zuzenean parte hartzea tokatzen zaigu. Zerbait aldatuko da, lehenbiziko lana prozesioan lehenbiziko filan joatea izanen da eta hortan ez dut ohitura handirik. Lehen ordurikan gabe parranda egiten genuen, dena guretzako genuen eta orain beste ardura eta behar batzuk izanen dira eta horren arabera joanen dira festak», dio. Herriko Etxean lehen aldiz ari da lanean, baina lehendik Gazte Asanbladan eta Umore Ona elkarteke idazkari gisara aritu da.

Festen antolaketa batez ere Udalaren esku dagoela adierazi arren, «herriko beste eragileen beharra badaukagu: Gaztetxea, Guraso Elkartea, Umore Ona... gauza askotan elkarlanak funtzionatzen du». Aurtengo Amabirjinen egitarau gehiena lehengo udalbatzak prestatu zuen, «gauza gehienak lotuak zituzten eta falta ziren xehetasun batzuk, pilota partidak, zezenak... oraingoarekin batera elkarrekin lotu ditugu». Aldaketa handiegirik ez da izanen programan, baina «txupinazoa igandean botatzea tokatzen denez, larunbatean ere Gazte Eguna antolatu da. Beraz, gaupaseroren batzuekin eta giro polita espero dugu txupinazoan, xaltxa pixko bat izanen da». Lehenbiziko suziria nork piztuko duen ez omen dute erabaki oraindik.

Egun batzuk lekuz aldatu badira ere, sei eguneko egitarau zabala izanen dute Goizuetan eta aurtengoan, berezitasun gisara, lehen aldiz emakumeei zuzendutako eguna prestatu dute. «Herriari baten ideia da. Berak aipatu zigun eta garbi dago horrela dela, festetan, Eguberrietan eta horrelako ospakizunetan emakumeek lan gehiago izaten dutela normalean, sukaldean, familia atenditzen... beraiei zuzendutako eguna antolatu dugu, lasaitasun osoz ateri eta parranda edo nahi dutena egiteko. Gizonak normalean parranda sueto egiten dugu eta ez dugu egun berezirik behar. Ea egun honekin berdintasunerako pausu bat ematen dugun». Festen aurrekontua poliki-poliki jeisten joan dela aipatu digu alkateak: «lax 45.000 euro bueltakoa zen eta aurtun 42.000 euro ingurukoa. Bazter guzietatik moztu egiten da eta festen ataletik ere estutu egin behar da, ordaindu egin behar zen zerbaitere herriarrek antolatuz, Umore Onako dantzariak egiten duten saioa, adibidez... Horrelako trukeak egin dira».

Herriari antolatzen diren ekitaldi gehienetan parte hartzen du Mirandak, «baita festetan ere, nerretzat peñen eguna gustokoa da, herriari guziok egiten dugun eguna delako, denak egun horretarako modu batera edo bestera erreserbatzen gara». Goizaldean egiten diren ekitaldietan, << aldiz, ez du gehiegi parte hartzen, «non eta bezperatik ez gaituen harrapatzen. Umeen Egunean ere bada 15 bat urte parte hartzen ez dudala, pixko bat zahartu gara horretarako, baina gainerakoan denean parte hartzea gustatzen zait, posible izanez gero». Goizuetako festek denetatik zerbait badutela uste du alkateak, «nahiko konpletoak dira, bada umeentzako zerbait, zaharrentzako», eta zerbait gehitzekotan, «kulturarekin lotutako zerbait izanen zen edo beharbada musika taldeak berritzen joan, urtetik urtera gehienetan errepikatu egiten direlako».





# EGITARRUA

**LEKAROZ**  
Abuztuaren 23tik 27ra

## Abuztuak 23 asteartea BEZPERA

**20:00** TXUPINAZOA. **21:00** Ezkila jotzea. **21:30** BAZTAN ZOPAK. **00:00** Dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.



## Abuztuak 24 asteazkena SAN BARTOLOME EGUNE

**10:00** Argisoinuek. **12:00** Meza nagusia. **13:00** Herriko Dantzariak **18:00** Bertsolariek. An-doni Egaña, Xabier Silveira, Ion Barberena eta Jon Maia. **20:00** Dantzaldia JOXE ANJEL akordeolariarekin. **22:00** Mutildantzak eta gaita. **00:00** Dantzaldia JOXE ANJEL akordeolariarekin.



## Abuztuak 25 ortzeguna HAURREN EGUNE

**10:00** Argisoinuek. **12:00** Haurren arteko jokoak. **14:00** Haurren bazkarie. **16:30** haurren - tzat puzgarriek. **20:00** Dantzaldia MODESTO akordeolariarekin. **22:00** Mutildantzak eta gaita. **00:00** Dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.

## Abuztuak 26 ortzirala GAZTEEN EGUNE

**10:00** Argisoinuek. **14:00** Gazten Bazkarie. **17:00** Mus Zimizte. **18:00** Gazten arteko jokuek **19:00-22:00** dantzaldia akordeolariakin. **22:00** Mutildantzak eta gaita. **23:30** Rock kontzertuek Ufestuek, Idroh, Goienetxe anaiak eta Talde sorpresa.

## Abuztuak 27 larunbata HERRIKO EGUNE

**10:00** Argisoinuek. **12:00** Futbol partida Gazteak vs Zaharrak. **14:00** Herriko bazkarie AGE - RRALDEK alaiturik. **20:00** Dantzaldia Garraxi taldearekin. **22:00** mutildantzak eta gaita. **01:00** Dantzaldie Garraxi taldearekin. **Gero Gaixoa ni**







Argitxu AGERRE | Zugarramurdiko Akelarre elkartekoa

## «800 lagun biltzen gara zikiroan eta laguntza handia behar da»



Akelarre elkarteko Argitxu Agerrentzat besta bereziak izanen dira aurtengoak. «Gan den urtean bi egunez bertzerik ez nintzen Zugarramurdi izan. Aurten beste-tako ekitaldi guziak gozatu nahi ditut, egun guzietan».

Izan ere, 28 urteko zuamurdiarra Lazkaon bizi da, baina ahal duen aste hon-dar guzietan sorterrira itzultzen da: «Ikas-ketak direla-eta beti ez naiz gaten ahal eta pena izaten dut, baina gehienetan Zu-garramurdi naiz. Herriak tiratzen du».

Herriko besten antolaketaz Akelarre elkarte arduratzen da, «baina gero mundu guziak laguntzen du, zikiroarendako la-guntza handia behar da, 800 pertsona

izaten baitira bazkaltzen. Errebestetakoa herrikoia goa izaten da eta 200 bat lagun biltzen gara». Izan ere, lezeetan egiten den zikiroa izanen da Zugarramur-diko bestetan entzute gehien duen ekitaldia, «eta Zugarramurdi, Urdazubi edo Sarako auzo jendearekin batera, Gipuzkoatik edo Frantzialdetik ere jende ainitz etortzen da».

Besta antolatzeko orduan buruhausterik handiena, «txarangak bilatzea» dela uste du Argitxuk. «Lehenbiziko urtean aski ongi, baina bigarreanean hartzen dute kriston mozkorraldia zikiroan eta ez dute gehiago jotzen. Hurrengo urterako bertze bat hartu eta gauza bera egiten dute. Ezin bilatuz ibiltzen gara!».

Egitarauan ez da aldaketa handirik izaten eta horregatik antolaketa lanak ez die denbora handirik kentzen. Hori bai, «musika taldeak eta ezin dituzu azken ordurako utzi, abuztuko aste horretan bestak baitira alde guzietan. Horregatik, urte batean hurrengorako jada hartzen ditugu». Ez daki xuxen zenbatsuko aurre-kontua duten bestak, baina «zikiroko sarrera guziekin eta Herriko Etxeak gar-biketarako ematen duenarekin, gutti gora behera kubritzen dira gastu guziak».

Txupinazoa eta ondoko eskea gazteen ardura izaten da. «Duela bi urte arte ezkilak eskuz jotzen ziren, orai ez». Hain zuzen eskearen giro hori da herriko bestetan gehien gustatzen zaiona, «jendearekin eta lagunekin plazan egotea, poteoa, herri giroa...». Argitxu argazkilaria izanik, Zugarramurdiko besten argazkia ere jendearena izanen zela aipatu digu eta hurbiltzen denak ere «zuamurdiarrak» topatuko ditu, gauza berezi bezala.





## EGITARAUA

### Abuztuak 14 igandea

**10:00** besta hasierako suzria eta ezkil-joaldia. **Ondotik** eskea herrian barna Jaione eta Xabirekin. **14:00** bazkaria Herriko Etxean eskan ibili direnendako. **16:00** haurren jokoak. **20:00** Sarako kantariak. **22:00** piperrada plazan animatzen diren guzientzat. **Arratsalde-gauetz** Dantzaldia GARRAXI taldearekin.



### Abuztuak 15 astelehena AMABIRJIN EGUNA

**12:30** Meza Nagusia. **Ondotik** Herriko Etxeak aperitifa eskainiko du. **13:30** Berako Gure Txokoa dantza taldea plazan ariko da. **17:30** binakako eta lau terdiko pilota partidak. **Ondotik** Berako Gure Txokoa dantza taldea ariko da berriz ere. **Arratsalde-gauetz** dantzaldia Jalisko Band taldearekin.

### Abuztuak 16 asteartea

**12:00** Gorriti eta bere animalien ikuskizuna (basurdeak, oilarrak, pottokak...). **16:00** ginkana haurrentzat. **18:00** Euskal jokoak: aizkolariak, harrijasotzaileak, sokatira... **21:00** andreen afaria Azketa jatetxean. **Arratsalde-gauetz** dantzaldia JOSELU ANAYAK taldearekin.

### Abuztuak 17 asteazkena

**10:00** plater tiroketa. **12:00** erraldoiak eta buruhandiak karriketan barna. **12:00** Meza adinekoek antolatua. **14:00** bazkaria Azketan adinekoek antolatua. **17:30** ahate eta gako jokoak, Urruñako Herburu txarangak animaturik. **17:30** Akelarre-nean laguntza behar da piperrak xehetzeko. **20:00** Euskal dantzak Saltoka taldearekin. **21:00** tortilla lehiaketa. **Gauetz** Kiki Bordatxo taldearen musika.



### Abuztuak 18 ortzeguna

**08:00** zikiroa prestatzen hasiko dira lezean. **12:00** Urruñako Herburu txaranga, Baigorriko gaiteroak eta Beasaingo txaranga karriketan ibiliko dira eta aperitifa egingen da. **14:30** zikiro-jatea lezean txarangak eta gaiteroek animatua. **19:00** Larraindantza gaiteroak eta Mutxikoak plazan. **Arratsalde-gauetz** dantzaldia GAUBELA taldearekin. **Goizaldera** arno eta gasna pixko bat bestak ongi bukatzeko.

**GOIENETXE**  
zurgindegia  
ongi pasa bestak  
948 599 074 - 667 153 047  
ZUGARRAMUREN

**Zeramikaren**  
benta ONGI PASA BESTAK  
Vente du Carrelage  
Lori Venta | 51710 Zugarramurdi  
T 00 34 948 59 90 24 | T 00 34 948 59 92 02 | M 04 15 11 52 23  
www.izentatocarelage.com

**MONTXO** OSTATUA  
Dantzarineatik 2 km-tara  
ТАВЛКО-ДЕНДЯ  
АНЗАН-БОРДЯ - УРДЯЗЫБИ  
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

**AKELARRE**  
elkartek  
*besta zoriontsuak  
opa dizkizue  
zugarramurdiar  
eta  
bisitari guztiei*  
**ONGI PASA**





**ongi pasa  
herriko bestak!**

**TALLERES BERTIZARANA, S.L.**

Estruktura Metalikoa  
Alendako Mekanismoak  
Alak eta Berondak  
Enja Artistikoa  
Barbakoatan espezialistak

Tel. eta Faxa: 948 59 22 43 - NARBARTE  
Mugikorra: 600 456 875



Martiko  
Plaza Zabal, 4/1,  
31.700 Dena, Nafarroa  
Tel: 948 620010 Fax: 948 620036  
www.martiko.com

Martikorekin  
za zetu  
sukaldari.

**DENDA  
ORDUTEGIA**  
08:00etatik  
17:00etara



**ASTELEHENETIK-ORTZEGUNEA**  
09:30-17:00  
**ORTZIRALA 09:30-14:00 / 17:00-20:00**  
**LARUNBATA 09:00-14:00**

|                                 |        |
|---------------------------------|--------|
| • ARATXEAZPIZUNA                | 27 €/K |
| • ARATXETXULETA                 | 13 €/K |
| • ARATXE BIRIBILKIA             | 10 €/K |
| • ARATXE XERRAK                 | 10 €/K |
| • ARATXE-ZANGAR                 | 7 €/K  |
| • ARATXE GUSATUA                | 6 €/K  |
| • ARATXETXURRASKOA              | 6 €/K  |
| • ARATXEAREN HARAGI<br>TXIKITUA | 6 €/K  |

Santiago, 56B - behea  
31700 ELIZONDO  
T. 948 452 486



Estibalitz MUTUBERRIA | Gurutze SALABERRI | Besten antolatzaileak

## «Herriko bestak gazteen lana, parte hartzea eta dagoen giro onaren emaitza dira»



Estibalitz Mutuberria eta Gurutze Salaberri, 22 eta 20 urteko Narbarteko gazteak dira. Herriko besten antolakuntzan murgildurik ibiltzen dira, herriko bertze gazteekin antolatzen dituzte. Aurten San Felipe eguna asteartea izanda, bestek aurreko urteetan baino egun bat gehiago izanen dute.

Narbarten herriko gazteek antolatzen dituzte bestak «gainontzeko herritarren la-

guntza ere izaten dugu». Bide batez eskertu nahi dute inauterietan herriko jendeak eman zuen laguntza «aipagarria eta eskergarria delako», inauterietatik denbora pasatu bada ere, eskerrak emateko inoiz ez delako berandu izaten. Ez omen da hain zaila bestak antolatzea. «Lanak banatzen ditugu eta urteroko egin beharrak errepikatzea da izaten da».

Antolakuntzan ibili arren, bestak ere aprobetxatzen dituzte. «Formalago bhintzat ibiltzen gara. Dena den aurten eginen ez duguna, datorren urtean gogo gehiagorekin eginen dugu».

Herrian azken urteetan ezagun egin den 'kantzontzillo karrera', ez lukete antolatutako zerbait dela erranen, giroan sartuta zaudenean sortutako gauza bat da. Edanaren eta momentuko alaitasunaren ondorio. Hori bai, erran beharra dago arrakasta haundia izaten duela. Herriko plaza gurutzatu behar izaten da galtzak jaitsita eta lehen iristen denak irabazten du. Gurutzek eta Estibalitzek ez omen dute inoiz parte hartu eta prestakuntza berezirik behar den ez dakite «one-na parte hartzaileei galdetzea!» diote irriz.

Herri kirolen desafiorik ere ez da faltako aurten, urtero bezala aizkoran eta motozerrarekin desafioak izanen dira. «Arras giro polita sortzen da herriko gazteek ere parte hartzen baitute».

Abuztu hondarreko bestak izanda eta hainbat herritakoak pasatu ondotik, indarrak ongi neurtuta ailegatzen omen dira «Amabirjin bestak entrenamendu gisa hartzeko ohitura dugu, herrikoetara sasoi betean ailegatzeko!» diote irri artean.

Narbarteko bestetan giro ederra egoten dela diote, «herriko bestak gazteen lana, parte hartzea eta dagoen giro onaren ondorioa baitira. Denak gonbidatuta zaudete. Animatu, edari eta musika eskasirik ez da izanen!».





## EGITARAUA

### Abuztuak 19 ortzira

**12:00** SUZIRIA eta ezkil jotzearekin beste hasiera emanen zaie. Akordeoilariek herri alaituz.

**13:00** Bazkaria herriko ostatuan. **15:00** Herriko gazteak Oihana Elizalde eta Oihana Mingegia trikitilariarekin etxetik etxetik ibiliko dira. **Arratsaldean** haurren marrazteko ordua. **18:30** txokolatada. **21:00** Herriko Ostatuan Zopak zerbitzatuko dira. **Gauez** dantzaldia Joxe Anjel eskutik.



### Abuztuak 20 larunbata GAZTEEN EGUNA

**14:00** gazteen bazkaria. **Ondotik** karaokea. **Arratsaldean** dantzaldia GARRAXI taldearekin.

**21:00** VII. tortilla txapelketa **Gero** afaria denentzat. **Ondotik** Gaupasa GARRAXI taldearekin.

**06:30** sardin zahar jatea eta arropa lizunen laixterketa.

### Abuztuak 21 igandea

**11:00** Meza. **17:30** HERRI KIROL desafioa herritarren artean. **Arratsaldean** dantzaldia IRUNE eta ITXASOekin. **Gauez** dantzaldia Agueralde akordeolariarekin.

### Abuztuak 22 astelehena HAURREN EGUNA

**10:00** haur jokoak. **11:00** PLATER TIROKETA. **13:30** HAUR BAZKARIA. **Arratsaldean** puzgarriak eta kars. **16:30** mus eta partxis txapelketa. **Arratsaldean-Gauez** dantzaldia Joxe Anjel akordeolariarekin.



### Abuztuak 23 asteartea SAN FELIPE BENIZIOREN EGUNA

**08:00** AURORAK. **11:00** Meza nagusia. **Ondotik** dantzak eta luntxa. **14:00** zikiri jatea Bittor Elizagoien, Julen Zelaieta eta Manolo Arozena bertsolariarekin. **Ondotik** Urdaiazpikoa zozketatuko da herritarren artean. **Arratsaldean-Gauez** dantzaldia AGERRALDE akordeolariarekin. **Goiz aldera** GAIXOA NI eta besteei akabera emanen zaie.

**PANPOX**  
dantzandegia  
ongi pasa bestak!

948 59 21 53 • Gorriti, 3 • NARBATE

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA

Sunbilla • Tel: 948 450 862

**EZKONTZARAKO**  
**ESKAINTZA BEREZIA**  
Andregaiaren erramua +  
elizako loreak +  
detalleak eginez gero  
**KOTXKO LOREAK OPARI**

Serpentina Haronak Badilaga  
NARBATE | T. 948 59 22 00

**Mailposta Buzoneos**  
publizitatea • Inprenta

¡Behar duzun guztia  
preziorik onenean!

bisita txarfelak • egutegiak  
kartelak • folletoak • fakturak  
pegalnak • rekordatorloak  
gonbidapenak ....

Narbate • 686 74 77 13  
www.mailpostabuzoneos.com





**Abuztuak 26 ortzira**  
10:30 HAUR JOKOAK herriko plazan. 16:00 haurrendako eta helduendako tailerrak plazan. 20:00 SUZIRIA kontzejoan. 21:00 ZOPAK. 00:00 Dantzaldia GARRAXI taldearekin.



**Abuztuak 27 larunbata**  
07:00 AURORA. Ondotik gosaria. 11:00 pilota partidak frontoian. 18:00 Ginkana. Arratsalde-gauez Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. Arratsaldeko musika akitzen denean suzko zezena. 22:00 Gazte afaria.



**Abuztuak 28 igandea**  
12:00 MEZA NAGUSIA. Ondotik LUNTXA elkartean. 18:00 aizkolariak. 20:00 Musika eta suzko zezena. 22:00 Afari herrikoia plazan. 23:00 Musika.

**Abuztuak 29 astelehena**  
09:30 MUS TXAPELKETA. 14:00 ZIKIRO jatea. Arratsalde-gauez Dantzaldia DJ JOSEren eskutik. Goizeko ordu ttikitari Gaixoa ni.



**Irailak 7 asteazkena SANTA LEOKADIA EGUNA**  
11:00 meza nagusia Leokadiko basilizan. Ondotik nahi duenarentzat bazkaria.

**Irailak 10 larunbata**  
20:00 Suziria. 21:00 Zopak.

**Irailak 11 igandea**  
12:00 meza nagusia. 14:00 bazkaria. Arratsalde Dantzaldia Agerralde akordeolari-arekin.



## ETXEBIZITZAK salgai

**DONEZTEBE.** Pisua salgai. Sukaldea, komuna, 2 logela, egongela handia eta despentsa. 15 m<sup>2</sup>ko trastelekua. ☎630 160353.

**BERA.** Itzea auzoan 97 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera onean, bainugela berriarekin eta igogailuarekin. Balkoia ere handitua. ☎948 580829 - 637 446110.

## ETXEBIZITZAK errentan emateko

**DONEZTEBE.** Pisua errentan eman nahi da. Mobleztatua eta kalefakzioarekin. ☎628 045374.

**BERA.** Eztegarra pasealeakuan pisua errentan emateko. Sukaldea, komuna, egongela eta 3 logela. ☎697 440590 - 948 631143.

**ZUGARRAMURDI.** Pisua errentan ematen da. Sukalde-egongela, bainu bat, 3 logela eta terraza ttikia baditu. ☎675 520339.

## ANZABAL INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatuak bere lurra-  
rekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

## MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA  
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

## GARAJEAK/LOKALAK salgai

**LESAKA.** Azkaine karrikan 24 m<sup>2</sup>ko lokala salgai. Orain arte garaje moduan erabilia. ☎667 796439.

## GARAJEAK/LOKALAK errentan emateko

**LESAKA.** Plaza Berria karrikan bulegoa errentan emateko. Lanerako prest. Zuk zenbat ordain deza-kezu? ☎948 630287.

**DONEZTEBE.** Aparan inguruan 75 m<sup>2</sup>ko pabiloia errentan emateko. Argia eta urarekin. ☎659 613240.

## GARAJEAK/LOKALAK eskualdatzeko

**LEITZA.** Gaztañaga taberna traspasatzeko. Modu onean. ☎699 361194.

## LANA eskaintzak

**BERA.** Emakumea behar da ostatu batean sukaldari laguntzaile aritzeko. ☎948 630259.

**Biltegiko arduradun** bezala lan egiteko administrazioa behar da. Euskara eta informatika jakitea beharrezkoa da. Frantsesa ere baloratuko da. Curriculumak bidali: almacene-robazan@hotmail.com.

**Inkestatzailak** behar dira. ☎699 382673.

**ETXALAR.** Emakume bat behar da abutzuko hila-betean arratsaldetan lau orduz eta igande goizean 3 orduz zaintze lanak egiteko. ☎617 740269.

**BERA.** Emakumea behar da janaridenda batean lan egiteko. ☎948 631388.

## LANA eskariak

**Gizonezko bat** edozein lanetan ariko litzateke. ☎618 628276.

**Gizonezko bat** edozein lanetan aritzeko prest dago. Esperientziaduna. ☎610 956130.

**Neska gazte euskaldun** bat edozein lanetan ariko litzateke: etxeak garbitzen, adinekoak eta umeak zaintzen... ☎695 716894.

Arratsaldez eta asteburuetan **emakume batek** lan eginen luke etxeko la-

netan edo adinekoak zaintzen. ☎639 080811.

**Emakume batek** adinekoak zainduko litzuke interna moduan. ☎678 397046.

## MOTORRAK tailerrak



**MENDAU MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE  
**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

## ZERBITZUAK denetarik



## MOTORRA salerosketak

**Renault Kangoo 1.5 dci** autoa salgai. Diesela, 2002. urtekoa. 5 plaza-koa. Egoera oso onean. 3.500 eurotan. ☎647 525516.



## ANIMALIAK oparitzeko

**Zakurkumeak** oparitzeko. Pastor aleman nahas-keta. ☎635 744732.

**3 hilabeteko txakurkumea** emea oparitzeko. Ama setterra eta atta spaniel arrazakoa. ☎678 024636.

**Hiru hilabeteko** arditako zakurkumea opari ematen da. ☎652 729101.

## ANIMALIAK salgai

**Setter ingeles zakurkumeak** salgai, LOErekin, Radentis Despañaren bilobak. Txertatuak eta desparasituak. ☎620 209663.

## DENETARIK salerosketak

**Kalefakziorako gasolio depositoa** salgai. 1.000 litrokoa eta homologatua. ☎948 464183.

Belarrari buelta emateko **piruleta**, traktore handia-  
rentzat salgai. ☎661 767027.

**SANTESTEBAN Tailerrak**

**MEZANE GRAND TOUR**  
BORDA 1.600 105 CV  
15.000 km - 2011koak

**MEZANE BILLYANGUE**  
1.600 105 CV  
15.000 km - 2011koak

**MEZANE BILLYANGUE**  
1.600 105 CV  
15.000 km - 2011koak

**ETA GAINERA**  
Gazte-eremuko Meza 1.600 CV  
Gazte-eremuko Meza 1.600 CV  
15.000 km - 2011koak


**KATIBO RACE AUTHENTIC**  
1.600 105 CV  
15.000 km - 2011koak

**DONEZTEBEKO RENAULT** eta **KITTE** SA BIKHITAN SEKULARA ERANTZAK


# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,35€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez




JOEL MAYLIN ETXEGIAK 2 urte bete ditu uztailaren 27an. Muxu pila-pila gure morroxkori Kartxotenetik.



Goizuetako JUNE ALSUA YARZAK 3 urte beteko ditu abuztuaren 21ean. Zorionak!!!




Etxalarko EIDER INDABURU LOIDIK 6 urte beteko ditu abuztuaren 18an. Zorionak familiaren partetik eta muxu handi bat.



Lesakako ORTI AROTZENA PORTUK 7 urte beteko ditu abuztuaren 16an. Aunitz urtez familia osoaren eta bereziki bihotz bihotzez maite zaituzten Lexuri arrebaren eta Elorri eta Aiert anaien partetik. 7 muxu haundi-haundi!!!




Lesakako ORTI AROTZENA PORTUK 7 urte beteko ditu abuztuaren 16an. Aunitz urtez familia osoaren eta bereziki bihotz bihotzez maite zaituzten Lexuri arrebaren eta Elorri eta Aiert anaien partetik. 7 muxu haundi-haundi!!!



Aribeko BENATEK 4 urte beteko ditu abuztuaren 7an. Zorionak Etxalar aldetik eta ongi pasa zure eguna.



Lesakako JANITZ IRIGOIENEK urte bat bete du uztailaren 18an. Zorionak eta muxu potolo bat Beñaten partetik.



BENAT eta ALAITZEK urteak bete dituzte abuztuaren 1ean eta uztailaren 26an. Zorionak etxeko partetik.



Lesakako BENAT BERAU ARRIBILLAK urte bat bete du abuztuaren 1ean. Zorionak Etxalar birratxari eta birramatxiren partetik.



Sunbillaiko IRADI ARRETXEAK 7 urte beteko ditu abuztuaren 21ean. Zorionak famili eta lagun guztien eta bereziki Maialenen partetik. Ongi pasa zure eguna!




Berako GEXAN SAN JUAN AROZENAK 2 urte bete ditu uztailaren 30ean. Zorionak familia guztien partetik.



Berako AIALA SAN JUAN AROZENAK 5 urte beteko ditu abuztuaren 12an. Zorionak eta 5 muxu haundi familiaren partetik.



Lakuntzako MADDI SAN SEBASTIAN ARRAZAK 7 urte beteko ditu abuztuaren 13an. Zorionak, mila musu eta besarkada bat famili guztien partetik.



Lesakako UNAI ARANGUREN MUTUBERRIAK 2 urte bete ditu abuztuaren 1ean. Zorionak familia guztien partetik.



Doneztebeko MIKEL eta NEREA ARREGI ETXARTEK 3 eta 6 urte beteko dituzte uztailaren 20an eta abuztuaren 19an. Zorionak eta aunitz urtez familia osoaren partetik.



Attona MANOLAK 62 urte beteko ditu abuztuaren 29an. Zorionak zure begietako biloba Lexuri, Orti, Elorri eta Aiert partetik.



MIREN INDAK eta LEIRE SALDIASEK uztailaren 29an eta 26an 18 eta 16 urte bete dituzte. Berendu goxo baten esperoan gelditu gara. Zuen merendua bezain handiak izango diren bi muxu. Amaia eta Naiara.



Elizondoko OIER JUANIKOTENA CALLEJAK 4 urte beteko ditu abuztuaren 8an. Zorionak osabak, izeba eta bereziki amatxi, Iker, Laura, Julien eta osaba Fernandoren partetik. Ongi pasa eta 4 muxu haundi.



Bi neska polit hauek laster urteak beteko dituzte. Aunitz urtez eta afari goxo baten zain gelditzen gara, eh! Muxu haundi bat. Kaxkarrak.



MIKEL eta IRATI ALDUNTZIN OTXOTeko leitzarrek 2 eta 5 urte beteko dituzte abuztuaren 2an eta 26an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



Leitzeko JON eta JOANES lehengusuek 5 urte beteko dituzte abuztuaren 3 eta 4an. Zorionak eta muxu asko famili guztien partetik. Ongi pasa berendu goxo batekin.



ENAITZ eta UNAX OSKOZ ANTZIZAR lesakarrekin 3 urte abuztuaren 19an eta BENAT RENAUD ANTZIZAR bere lehengusuekin 7 urte abuztuaren 7an beteko dituzte. Aunitz urtez familia osoaren partetik.



Lesakako ENAITZ eta UNAX OSKOZ ANTZIZARREK 3 urte beteko dituzte abuztuaren 19an. Aunitz urtez Arantzako aitaxi Manuelen partetik. Ea abudo hasten zareten belartan laguntzen!!!



Lesakako NIEVES IRIARTEK abuztuaren 5ean urteak bete ditu. Miles-ker gu zaindu eta hain ona izateagatik, biloba guztien partetik. Muxu haundi bat.



Lesakako MERTXE ANTZIZAR IRIARTE eta BENAT RENAUD ANTZIZAR izeba-ilobek abuztuaren 7an 46 eta 7 urte beteko dituzte. Aunitz urtez familia osoaren partetik.

ttipi txartela harpidetza baino merkeagoa da

+ ttipi-ttapa aldirik ere duan  
39 dendetan deskontuak

hamabostero ~~zozketa~~ zuzenak

40euro  
- 10euro  
30euro

ttipi-ttapa urteko koda 21 euro baino da.  
TTIPi TXARTELA duzuek, 21 euro zuzeneko duzue urteko eskaintza.  
Eskaintza Auzopentuan 10 euro izaniko duzue

ttipi txartela

ttipi-ttapa aldirik ere duan  
39 dendetan deskontuak

40euro  
- 10euro  
30euro





Kolon Pasealekua, 64 beheak • 20301 - IRUN  
Tel. 689 639 543 • [www.psykobi.de.com](http://www.psykobi.de.com)



24 ORDUKO TELEFONOA  
948581959 | 948637404

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA  
LOREAK, HILARRIAK, ESKEIAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Stewart, L. J.



# ARANTZA

## ZURGINDEGIA

Egurrezko teilatuak  
Egurrezko etxeak  
(ikusgai Lekunberrin)

Klase guztietako  
zurgin lanak

*Eskatu aurrekontua  
konprimisorik gabe*

**ONGI PASA BESTAK!**

JOXE MIGUEL ERRANDONEA  
647 810 144 · 626 093 181  
ARANTZA